



## **Tokiko Giza Garapena, genero berdintasunetik: prozesua eraikitzen**

Egileak: Yolanda Jubeto Ruiz eta Mertxe Larrañaga Sarriegui

Koordinatzailea: Amaia del Río Martínez

ISBN: 978-84-89916-88-3

2014ko martxoa

Hegoa



[www.hegoa.ehu.es](http://www.hegoa.ehu.es)

UPV/EHU. Zubiria Etxea eraikina  
Lehendakari Agirre hiribidea 81  
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91

Faxa: 94 601 70 40

[hegoa@ehu.es](mailto:hegoa@ehu.es)

UPV/EHU. Carlos Santamaría zentroa  
Elhuyar Plaza 2  
20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64

Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia

138 posta-kutxatila

Nieves Cano 33

01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. / Faxa: 945 01 42 87

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.



Dokumentu hau Creative Commons lizentziarekin dago. Zilegi da obra hau askatasunaz kopian, banatu eta komunikatzea, betiere, haren egiletza aitortzen bada eta xede komertzialetarako ez bada. Ezin egin daiteke obra honetan inolako aldaketarik, ezta obra honetatik eratorritako beste obrarik sortu ere.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Finantziarioa:



# Tokiko Giza Garapena, genero berdintasunetik: prozesua eraikitzen

Yolanda Jubeto Ruiz  
Mertxe Larrañaga Sarriegui



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL  
NAZIOARTIKO LANIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA



## **Aurkibidea**

<b>Siglen zerrenda</b>	7
<b>Sarrera</b>	9
<b>1. Gizarte eraldaketako prozesuei bultzada eman dieten ekarpen teoriko adierazgarriak</b>	13
1.1. Ekonomia feministaren eta garapenaren gakoak	19
1.2. Ekarpen ekofeministak	27
1.3. Postkolonialismo feministaren ekarpenak	31
1.4. Institutuzionalismo erradikalaren ekarpenak	35
<b>2. Ekonomia Feminista eta Tokiko Giza Garapena: elkarguneak</b>	41
2.1. Gizonen eta emakumeen arteko harremanak, garapenari buruzko pentsamenduan	43
2.2. Gaitasunen ikuspegia, genero berdintasunetik	44
2.3. Gaitasunak ebaluatzeko adierazleen premia	51
<b>3. Eztabaidarako gakoak</b>	57
<b>4. Bibliografia</b>	61

## Irudien aurkibidea

1. irudia.	Generoaren kontzeptuari buruzko oharra	15
2. irudia.	Emakumeen egoera eta posizioa	16
3. irudia.	Behar praktikoak eta interes estrategikoak	17
4. irudia.	Birbanaketa eta aitortza politikak	18
5. irudia.	Ekonomia Feministaren ardatzak	20
6. irudia.	Zaintzaren ekonomiaren espazioak	23
7. irudia.	Generoari atxikitako lan arloko berdintasunik ezak	25
8. irudia.	Ekofeminismoaren gakoak	30
9. irudia.	Postkolonialismo feministaren ekarpen kritikoak	34
10. irudia.	Hastapeneko instituzionalismoaren oinarritzko ideia batzuk	38
11. irudia.	Generoari eta garapenari buruzko eztabaidetatik eratorritako zenbait ikuspegi	44
12. irudia.	Eskubideen ikuspegia eta Ekonomia, Gizarte, Kultura eta Ingurumen Eskubideak (EGKIE)	45
13. irudia.	Martha Nussbaumen gaitasun nagusiak, eta Ingrid Robeynsenak	47
14. irudia.	Gaitasunen ikuspegia eta Ekonomia Feminista	49
15. irudia.	Ongizatearen eta berdintasunik ezaren adierazle konposatu nagusiak	54
16. irudia.	Bizitza Hobe Baterako Indizearen dimentsioak eta adierazleak	55

## Siglen zerrenda

AWID Association for Women´s Rights in Development

PGNK Populazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzia

DAWN Development Alternatives with Women for a New Era

EGKIE Ekonomia, Gizarte, Kultura eta Ingurumen Eskubideak

TGG Tokiko Giza Garapena

AEB Ameriketako Estatu Batuak

GEG Generoa eta Garapena

GAGI Genero Arrakala Globalaren Indizea

GBEI Genero Berdintasunik Ezaren Indizea

GGI Giza Garapenaren Indizea

GGI-BE GGI, berdintasunik ezera egokitua

GBI Genero Berdintasunaren Indizea

EAEI Emakumeen Aukera Ekonomikoen Indizea

DAPI Dimentsio Anitzeko Pobrezia Indizea

EG Emakumeak Garapenean

NB Nazio Batuak

ELGA Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea

NBE Nazio Batuen Erakundea

EESKNI Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna

GNBP Garapenerako Nazio Batuen Programa

GGEI Genero eta Gizarte Erakundearen Indizea





Sarrera





Denbora historikoa aintzat hartzeak garrantzia du, ez soilik ziurgabetasuna aintzat hartzera behartzen gaituelako, baizik eta gure hautematea egituratzen duen eta, beraz, etorkizun ziurgabe horri buruz dugun portaeran eragina duen erakunde multzo batek osatua delako gaur egunera bitarteko ondare historikoa.

Shaun Hargreaves Heap (1986)<sup>1</sup>

Lan honen helburua da gaitasunen ikuspegiari buruzko gogoeta egitea, ekarpen feministatik abiatuta. Horretarako, Ekonomia Feminista hartuko dugu oinarri teoriko nagusi gisa. Teoria horrek emakumeen eta gizonen errealitateak uztartuko eta aztertuko dituen eta haien beharrei erantzungo dien ekonomia bat eraikitzearen aldeko apustua egiten du (Carrasco, 1999). Bide horretan, emakumeen eskubide ekonomiko, sozial eta politikoak eraginkortasunez aplikatzea aldarrikatzen du, demokrazia ekonomikoa eta gizarte justizia bultzatzeko.

Dokumentu hau Tokiko Giza Garapenaren (TGG) ikuspegiaren potentzialtasunei buruzko talde ikerketa baten parte da; ekologia eta gizarte ikuspegitik bidezkoak eta iraunkorrak izango diren eta, betiere, askotariko errealitateetara egokitze moduko alternatiba batzuk bilatzeko potentzialtasunei buruzko ikerketaren baitan kokatzen da. TGGren esparru teoriko eta metodologikoa Alfonso Duboisk (2013) landutako oinarrizko dokumentuan aztertzen da; dokumentu hori da, hain zuzen ere, ikerketa osoaren abiapuntua. Gure asmoa da ikuspegi horretan begirada feminista txertatzea, ezinbesteko begirada baita gaur egungo munduko bidegabekeriak eta berdintasunik ezak gainditzeko planteamenduetan.

Orrialde hauetan aurkezten dugun txostena bi kapitulu handitan banatuta dago. Lehenengoan, Ekonomia Feministaren ardatz batzuk lantzen dira, baita ekofeminismoaren, postkolonialismo feministaren eta instituzionalismo erradikalaren ekarpenak ere. Bigarrenak, berriz, genero ikuspegiak garapenari buruzko pentsamenduan izan duen bilakaeraren laburpena biltzen du, feminismoaren ikusmiratik aztertzen du gaitasunen ikuspegia eta, amaitzeko, bizitzaren iraunkortasuna sustatzeko funtsezko gaitasunen arteko loturak lantzen ditu.

Dokumentuaren abiapuntu gisa, Ekonomia Feministaren eta Tokiko Giza Garapena eraikitze prozesuen edo gaitasunen ikuspegiaren arteko loturari buruzko gogoetan

<sup>1</sup> Honako honetatik hartutako aipua: Pheby, John (arg.) (1989): *New directions in Post-Keynesian Economics*. Edward Elgar. Dokumentu honen egileek gaztelaniara egindako itzulpenetik itzulia.

bereziki adierazgarriak irizten diegun ekarpenak aztertuko dira. Landutako puntuen artean, bereziki azpimarratu dira esparru ez-merkantilak aitortzearen eta aintzat hartzearen aldeko proposamenak, genero berdintasunik ezarekiko duten kezka eta gizarte eraldaketaren alde egiten duten apustua.

Jarraian, ekarpen ekofeminista batzuen laburpena egin dugu, interesgarriak iruditzen zaizkigulako gaur egun gailentzen den kultura kapitalista patriarkalak naturarekiko duen mespretxuarekin uztartzen dituen heinean emakumeen mendekotasunaren eta bazterketaren arazoak. Sistema kapitalista heteropatriarkalaren kontra egin dituzten kritikei arreta emango diegu, nagusiki; kritika horien haritik, *garapen gaiztoa* salatu dute, baita garapen gaizto horrek egoerarik ahulenean dauden planetako emakumeen eta gizonen gorputzetan eta bizitzetan izan dituen ondorioak ere. Gainera, eragin horiek jasaten dituztenen artean emakumeek duten protagonismoa azpimarratzen dute egile ekofeminista askok, batez ere, emakume pobretuenena, nagusiki haien bizkar jausten baita planetaren hondamenaren kostuen parte handiena, zeinaren larritasunari sistematikoki ezikusiarrena egiten baitiote mundu mailako elite gailenek.

Gogoeta ekofeministaren ondoren, feminista postkolonialen edo mugako feministen gogoeta batzuk bildu ditugu, kontuan hartuta egile horien bizipen aberats eta askotarikoak eta mundua interpretatzeko darabilten modua. Beren errealitateetatik abiatuta, bizi baldintza material eta sinbolikoen analisia egiten dute feminista horiek, eta, hala, aukera ematen digute bizi baldintza horietara hurbilketa kritiko bat egiteko. Beren analisietan, kontuan hartzen dituzte genero erlazioak eta klase, etnia nahiz sexu auke-raren araberako erlazioak, emakume horiek bizi duten azpiratze sistemak -sistema oso arrazistak eta hierarkia zorrotzekoak, oro har- eratzen dituzten funtsezko beste ardatz batzuek gainera.

Lehen kapituluko azken atalean, amerikar azterketa instituzionalistak izango ditugu hizpide, Ekonomia Feministaren ekonomiaren eta botere harremanen kontzeptu berari jarraitzen baitiote; eta, are gehiago, aberastu egiten baitute, gizarte bat eratzen duten balio, arau eta errutinen denboran zeharreko eraikuntza eta bilakaera prozesuei buruzko gogotekin. Prozesu horiek ezaugarritu dituzte, denboran zehar, kultura bakoitzaren baitako genero erlazioak, eta erlazio horien araberako partaidetza dute emakumeek eta gizonen etxe eta komunitateetan garatzen diren jardueretan, zentzu zabalean. Era berean, prozesu horietan, hierarkiak ezartzen dira sexu bakoitzari egotzen zaizkion rolen eta emakumeek eta gizonen erakundeekin dituzten elkarreraginaren balioei buruz.

Bigarren kapituluan, garapenarekin loturiko alderdiak genero berdintasunaren ikuspegitik aztertuko dira. Horretarako, gai honetaz arduratu diren bi joera teoriko nagusietakoak aipatuko ditugu, lehenik, labur-labur: *Emakumeak Garapenean* eta *Generoa eta Garapena*. Jarraian, gaitasunen teoriari helduko diogu; atal horretan, pertsonen bizi-kalitatearen funtsezko dimentsioak zehazten dira, gaitasunen ikuspegiak Ekonomia Feministarekin dituen elkarguneak bilatzen dira eta adierazleei buruzko gogoeta labur bat egiten da. Txostena amaitzeko, gako batzuk ematen dira Ekonomia Feministak garatutako oinarritzko kontzeptuen eta gaitasun nagusien arteko loturei buruzko eztabaidarako, kontuan hartuta, banakako gaitasunak ez ezik, gaitasun kolektiboak.

# 1. Gizarte eraldaketako prozesuetan genero berdintasuna sustatu duten ekarpen teoriko adierazgarriak





Alderdi hertsiki teorikoei heldu aurretik, testu honetan sarri agertuko diren zenbait hitzen esanahia argitu beharra dago, gure ustez. Lehenik eta behin, **generoaren kontzeptua**: bere garaian, iraultza semantiko moduko bat eragin zuen kontzeptu horrek, eta gizonen eta emakumeen arteko sexu diferentzien eraikuntza soziala adierazteko erabiltzen da. Beste era batera esanda, adierazten ditu “gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun erreal nahiz hautemanetan oinarriturik kultura batek eraikitako eredu kognitiboak. Fenomeno ez-biologikoen eta bereizkuntza biologikoaren gorputz esperimentziaren arteko lotura metaforikoa da generoa” (Nelson 1996).

Genero harremanek dualismo hierarkiko bat islatzen dute maskulino jotzen denaren goi ikusmoldeen eta femenino jotzen denaren behe ikusmoldeen artean, zeinak baitaude gure gizarteetako pentsamoldeetan sakon sustraituta eta oso zabaldua eta eratzen baitute imajinario kolektibo bat sexismoa eta femenino jotzen denarekin identifikatzen den ororekiko sexu diskriminazioa elikatzen dituen. Edonola ere, “generoa ez da modu berean bizi toki, gorputz eta kokagune guztietan”, eta ez da eraikuntza zurruna (Harcourt 2011), eraldatu egiten da gizarteak bilakatu eta aldatu ahala.


Ukaezina da kontzeptu horrek eraldaketarako izugarriko potentziala duela, kontuan hartzen badugu genero erlazioak biologikoki egituratutzat hartu ordez sozialki eraikitutzat hartzeak erlazio horiek aldatzeko aukera badela adierazten duela. Era berean, kontzeptuaren eduki erlazionalagatik, ezin erabil daiteke emakumeen sinonimotzat, ezkutatu egingo bailituzke gizonak gizarte eragile gisa, baita bi kategoriak, gizonak eta emakumeak, bata bestearekiko erlazioan eraikitzen eta elkarreraginean aritzen direla ere.

1. irudia. Generoaren kontzeptuari buruzko oharrak
<b>Gizonen eta emakumeen arteko sexu diferentzien eraikuntza soziala adierazteko erabiltzen da</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Ez da emakumeen sinonimoa.</li></ul>
<b>Eraldaketa potentzial handia du</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Genero harremanak sozialki eraikitutzat hartzeak harreman horiek alda daitezkeela adierazten du.</li></ul>
<b>Hutsaltzearen eta erabilera perbertsoaren arriskua</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• “Generoa termino teknifikatu bihurtu da. Munduko Bankuak emakumeen arazoez jarduteko erabiltzen du; gure ministerio eta erakundeek termino tekniko apolitiko gisa erabiltzen dute. Baina hor daude feminista beltzen kritikak, esaten baitute bi poloko genero dinamikak ulertzeko genuen moduak ez zituela aintzat hartzen haien bizimoldeak”. Virginia Vargas (2012/07/10). <a href="http://www.pagina12.com.ar/diario/sociedad/3-198276-2012-07-10.html">http://www.pagina12.com.ar/diario/sociedad/3-198276-2012-07-10.html</a></li></ul>

Garrantzi handiko kontzeptua da, bestalde, **interseksionaltasuna**, mota askotako berdintasunik ezak (etnia, gizarte klase, sexu joera, aniztasun funtzional, adin eta abarren

araberakoak) bizi dituzten askotariko emakumeen esperientzietatik eta gogoetetatik eratorria. Women's Rights in Development (AWID) elkartearentzat, genero eta ekonomia justiziarako tresna analitiko egokia da, "aukera ematen duen heinean generoa beste identitate batzuekin nola gurutzatzen den eta gurutzadura horiek zapalkuntza eta pribilegio esperientzia berdingabeei nola laguntzen dieten aztertzeke eta ulertzeke, eta horri guztiari erantzuteke" (AWID 2004). Kontzeptu hori, dena den, feminismo postkolonialari buruzko atalean landuko dugu.

Emakumeek eta gizonek bizi dituzten errealitate konplexu horiek aztertzeke tresna gisa erabiltzeke oinarritzko kontzeptuak dira, halaber, **emakumeen baldintzak eta posizioa**, jarraian ageri den koadroan laburturik adierazi ditugunak, baita emakumeen oinarritzko beharrak eta interes estrategikoak ere, jarraian azalduta daudenak, modu sintetikoan.



**Generoko behar praktikokoak** gizartean onartzen diren emakumeen etxeko esparruko roletatik (ama, emaztea, etxeko andrea) eratortzen dira; familiek eta komunitateek oinarritzko zerbitzu eta ondasun materialetan dituzten gabezia edo urritasunei loturiko berehalako premiak dira, eta emakumeek arlo publikoan esku hartzea dakarte.

Interes praktikoko horiek ez dute, sarritan, kolokan jartzen genero mendekotasuna edo berdintasunik eza, ordea. Hori dela eta, aurrekoekin konbinatuta, **generoko behar estrategikoei** erantzungo dieten neurriak behar dira, emakumeek gizartean duten mendekotasun, berdintasun falta eta diskriminazio egoeraren aitortza eta kontzientziaziaz eratorri eta generoko gizarte harremanak eraldatzea eta askatasuna, berdintasun erreala, autoestimua eta jabekuntza lortzeke xedea dutenak. Honako interes hauek biltzen dituztenak, besteak beste: legezko eskubidea, jabetza eta ondare eskubidea, indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea, norberaren gorputzaren kontrola eta sexu eta ugalketa eskubideak, intereseko gaien gaineko gaitasuna eta prestakuntza, politika publikoak diseinatzen, gauzatzen eta kontrolatzen parte hartzea eta, azken batean, emakumeen giza eskubideen defentsa.



3. irudia. Behar praktikoak eta interes estrategikoak	
Behar praktikoak	Interes estrategikoak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berehalako beharrak, oinarrizko zerbitzu eta ondasun materialen gabezia edo urritasunei loturikoak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumeen giza eskubideen defentsaren bidez gauzatzen dira.</li> </ul>

Sarrerako atal kontzeptual hau amaitzeko, genero analisisian funtsezkoak diren beste kontzeptu batzuk aipatuko ditugu. Batetik, emakumeen jabekuntza prozesuak eta, bestetik, birbanaketa eta aitortza politikak, emakumeek eta agindupeko kolektiboek bizi dituzten diskriminazioak gainditzeko proposamen modura.

Bat gatoz Marcela Lagardek **jabekuntzaz** emandako definizioarekin. Definizio horren arabera, jabekuntza bizi prozesuen multzo bat da, emakume bakoitzari edo emakume talde bakoitzari ahalmena ematen diena beren bizitzan indarrean dauden zapalkuntza moldeei (bazterketa, diskriminazioa, esplotazioa, abusua, jazarpena, gutxiespena, fideltasunik eza edo traizioa, ezintasuna, depresioa, bere burua gutxiestea, aukera, baliabide edo ondasun faltaren ondoriozko angustia, osasun arazoak, beldur izugarria, etab.) aurre egiteko botereak bereganatzeko edo asmatzeko eta barneratzeko.

“Esan ohi da emakume baten edo emakume talde baten jabekuntza gauzatuta dagoela jabekuntzaren bidez barneratutako botereak dagoeneko kanpokoak gertatzen ez zaizkienean, gorputz eta subjektibotasun bihurtzen zaizkienean, izateko eta bizitzeko modu bihurtzen zaizkienean. Emakume bakoitzak eta emakume talde bakoitzak beste ezerean gaintetik defendatzen dituen bere gorputza, baliabideak, gaitasunak, ondasunak, aukerak, berehalako eta aurreragoko mundua. Isolamendua gainditzea ez da mugatzen informazio trebetasunak garatzera; pertsonak bere buruaz eta munduaz duen ikuskerarekin lotuta dago. Garrantzi handiko alderdia da kontzientzia politikoa garatea, baina ez da aintzat hartu ohi, sarritan”<sup>2</sup>.

Jabekuntza deritzo emakume bakoitzak, pixkanaka eta, batzuetan, urrats handiz, historiaren, politikaren eta kulturaren objektu izateari uzteko eraldaketa prozesuari, emakume bakoitzak besteen objektu izateari uzteko eraldaketa prozesuari; hau da, besteentzat izateari utzi eta bere bizitzaren subjektu bihurtzeari, beretzat izateari, historiaren, kulturaren, politikaren eta gizarte bizitzaren protagonista bihurtzeari.

Prozesu kolektiboetan, generoari dagokionez, jabekuntzak emakumeei ahalbidetzen die munduaren beste erdia izateari uztea, gizonek -munduaren erdi gailena, androzentrikoa eta supremazista- azpiratu eta menderatutako luzakin bat izateari uztea eta gizadiaren, gizartearen, komunitatearen eta taldearen erdi bihurtzea, genero berdintasunean protagonista izanez gizartean, kulturaren, politikan, ekonomian, garapenean eta demokrazian. Emakume bakoitzarentzat eta emakumeen generoarentzat, subjektu izatean datza jabekuntza: subjektu sexual, sozial, ekonomiko, juridiko, judizial eta


<sup>2</sup> Lagarde, Marcela (S.F.) “Intercambio y desarrollo humano en América Latina”. Cidhal, AC. Honako honetan eskuragarri: <<http://empoderarmujeres.blogspot.com.es/2008/12/empoderamiento-segn-marcela-lagarde.html>>

politiko izatean. Eta, era berean, kulturaren subjektu izatean: esateko, komunikatzeko, jarduteko, esperimentatzeko eta sortzeko zilegitasuna pentsatzean eta sentitzean (Lagarde)<sup>3</sup>.

Gaitasunen ikuspegia ikuspegi arautzailea da, eta justizian oinarritzen da, gizarte eraldaketarako gakoak eskaini nahi dituen edozein planteamendu bezala. Diskriminazioa gainditzeko politika publikoen eginkizunari buruzko eztabaidan, oso argigarria da Nancy Fraserrek (1996) birbanaketa eta aitortza politikak uztartzeko premiari buruz egindako ekarpena, agerian uzten baitu zer-nolako aberastasuna dakarren politika publikoen analisisan ikuspegi feminista txertatzeak. Hona hemen Fraserren planteamenduaren funtsezko ideiak:

**Birbanaketa politikek** definitutako injustizia sozioekonomikoak deritzenak dituzte abiapuntu, horien artean esplotazioa -talde baten lanaren fruituak beste batek bereganatzearen ondorioz-, bazterketa ekonomikoa -gaizki ordaindutako lanak nahiz lan behartua biltzen ditu-, eta deprimazioa -bizi maila material egokia ukatzean datzana-. Eta guztiak ere oso estu lotuta daude dokumentu honetan aztertutako ditugun gaitasunekin.

**Aitortza politiken** xedea da aurre egitea injustizia kultural deritzenei. Injustizia kulturalak sakon errotuta daude irudikapen, interpretazio eta komunikazioaren gizarte eruedetan, eta haien artean bereziki azpimarratzekoak dira honako hauek: azpiratze kulturala, norberarenaz besteko edo/eta norberaren kulturarekiko arriotasunezko kultura batzuei loturiko interpretazio eta komunikazio erduekiko mendekotasuna; kultura batek beste kultura batzuk ikusezin egiten dituzten irudikapen autoritarioen bidez ezartzen duen aitortzarik eza; eta errespeturik eza, irudikapen kultural estereotipuetan eguneroko elkarreraginak gutxiesteak eragina.



<sup>3</sup> Lagarde, Marcela (S.F): *Guía para el empoderamiento de las mujeres*. Agrupación para la igualdad en el metal. Honako honetan eskuragarri: <[http://www.femeval.es/proyectos/ProyectosAnteriores/Sinnovaciontecnologia Documents/ACCION3\\_cuaderno1.pdf](http://www.femeval.es/proyectos/ProyectosAnteriores/Sinnovaciontecnologia/Documents/ACCION3_cuaderno1.pdf)>

## 1.1. Ekonomia feministaren eta garapenaren gakoak

Gaur egun ekonomia feminista deritzona XX. mendearen bigarren erditik aurrera garatzen hasi zen indarrez, baina historia luzea du: pentsamendu ekonomikoak berak bezain luzea ia. Hala ere, ekonomiaren diziplinaren barruan bigarren mailakoa da oraindik ere, seguru asko ekonomia hegemonikoen teorian eta praktikan gailentzen direnek beren gain hartu ezinezko aldaketak ekarriko lituzkeelako haren postulatuak onartzeak. Zientzia ekonomikoak ekonomista feministen proposamenekiko izan duen jarrera gorabehera, iruditzen zaigu ekonomia feministak sustrai sakonak egin dituela gizarteko sektore zabaletan, bereziki gaur egungo sistemari aurre egiteko alternatiba bila dabilzanen artean. Gizartean duen onespren horren adibide da, besteak beste, Espainiako Estatuan 2005. urteaz geroztik antolatzen diren *Ekonomia Feministako Jardunaldien* arrakasta.

Izenak berak erakusten duenez, ekonomia feministak feminismoa eta ekonomia uztartzen ditu, eta feminismo akademikoan txertatuta dago, beste hainbat diziplina-rekin batera (hala nola, filosofia, antropologia, soziologia, psikologia, zuzenbidea, etab.). Ekonomia feminista esapidea singularrean erabili ohi da, baina azpimarratu beharra dago ez dela pentsamendu joera monolitiko bat eta ezin duela, gainera, hala izan, ez dagoelako feminismo bakar bat, ekonomiaren gaineko ikuspegi bakar bat ez dagoen bezala.

Hala ere, badira gogoetarako elementu komun batzuk aniztasun horren baitan. Adibidez, oro har, onartuta dago jarduera ekonomikoek **bizitzaren iraunkortasuna** izan behar dutela azken xede, bizitzaren iraunkortasuntzat ulertuta bizitzaren erreproduktzio prozesua, zeinak eskatzen baititu baliabide materialak nahiz zaintza eta afektuzko testuinguruak eta erlazioak (Picchio 2001; Carrasco 2009). Prozesu horretan sartzen da, beraz, gizarte eta ingurumen ingurune iraunkorrean giza behar material nahiz afektiboak asetzea; eta, horretarako, ezinbestekoa da aintzat hartzea datozen belaunaldiei utziko dizkiegun giza harremanen kalitatea nahiz planetaren egoera. Bizitzaren iraunkortasunaren nozioa mugarik gabeko metaketaren eta etekinaren antitesi gisa erabiltzen da, eta, giza bizitzari erreferentzia egiten badio ere, bizitza molde orotara heda daiteke. Bizitzaren iraunkortasuna lortzeko, bizitza molde guztiak baldintzarik onenetan, justiziaz eta berdintasunez erreproduzitzeko eta iraunarazteko moduan antolatu behar dira ekoizpena, erreproduktzioa eta trukeak.

Ekonomiaren definizio zabala dugu abiapuntu, beraz. Adibidez, Julie Nelsonek iradoki duenez, ekonomiak “kontuan izan beharko luke gizakiek gure bizibidearen prestazioa eta hornidura antolatzeko dugun modua. Hornitze ekonomiko eta bizibidea dira azterketaren muina, bai merkatu, etxe edo gobernu jardunaren bidez egiten bada, baita trukea simetrikoa, hertsapen bidezkoa edo dohaintzen bidezkoa bada ere” (Nelson 1996). Ildo horretatik, Marilyn Powerrek “gizarte horniduraren azterketa” gisa definitzen du ekonomia, eta azpimarratzen du “jarduera ekonomikoak, funtsean, jendea bizitzeko modu kolektiboan antolatzeko moldeak adierazten” dituela (2004).

Azken hamarkadetan, ekonomia feministak auzi askori eman die arreta, baina elkarri estu lotutako hiru alderdi hauei erreparatu nahi diegu hemen, bereziki: oinarritzko kategoria ekonomikoak kolokan jartzea, berdintasunik ezeko harremanek ekonomian duten zeregina, eta gizarte justu eta berdinagoetarako aldaketaren aldeko apustua.

5. irudia. Ekonomia Feministaren ardatzak				
Iraunkortasunaren aldeko apustua		Berdintasunik ezen azterketa		Gizarte eraldaketaren xedea
Bizitzaren iraunkortasuna	Haustura kontzeptualak	Tokiko errealitateen eta errealitate globalen azterketa	Emakumeen dibertsitatea	Aldaketarako politika publikoak

### A. Bizitzaren iraunkortasuna

Ekonomiaren ikuspegi androzentrikoaren kritikaren bidez, kolokan jarri dira oinarritzko hainbat kategoria analitiko, hala nola, lanaren kontzeptua, jarduera ekonomikoarena, ongizatearena edo garapenarena. Ildo horretatik, funtsezko ekarpena izan da, zalantzarik gabe, kolokan jartzea ekonomia konbentzionalean modu inplizitu nahiz esplizituan enpleguaren sinonimotzat hartu den lanaren kontzeptua (Folbre 1995; Himmelweit 1995; Carrasco 1999). Lana ez da enplegua soilik (soldatapeko lana eta autonomia, nagusiki), eta barne hartzen ditu ordaindu gabeko lanak ere, lanaren kontzeptuak barne hartzen dituen heinean pertsonen beharrak asetzeko ondasunak eta zerbitzuak sortzera bideratutako jarduera guztiak. Lanaren kontzeptu estu hori kolokan jartzeak aukera eman du ekonomiaren mugak hausteko eta analisisa merkatutik haratago eramateko. Horrela, eten egin da, halaber, munduaren ikuspegi dikotomikoa (aktibitatea/aktibitatearik eza; balioa/baliorik eza; jarduera ekonomikoak/jarduera ez-ekonomikoak; lan merkantilak/lan ez-merkantilak; arlo publikoa/arlo pribatua), eta agerian gelditu dira esparru merkantilaren eta ez-merkantilaren arteko loturak (Dalla Costa 2009).

Lanaren birkontzeptualizazio horrek bultzatuta, etxeetako “kutxa beltza” berrireki da, etxeetan egiten diren jarduera produktibo eta afektiboaren gaineko askotariko analisisien bidez. Jarduera edo zeregin horiek funtsezko oinarria dira espeziearen biziraupenerako eta pertsonen bizi-kalitatearentzako, haietan sortzen diren botere harremanak eta gatazkak ebazteko estrategiak ahaztu gabe<sup>4</sup>. Horrekin lotuta, egiaztatu da oro har etxeek berregokitzen dutela sistema ekonomikoa, azken batean, eta berregokitze horietako batzuk, bereziki krisi garaietan egiten direnak, oso kaltegarriak izan daitezkeela emakumeentzat. Zalantzarik gabe, tentsio sakonak daude eta egon dira, beti, produkzioaren eta erreproduzioaren artean, eta garapen ereduaren gaineko eztabaidan ere kontuan hartu beharrekoak dira.

<sup>4</sup> Amartya Senek ere -Giza Garapenaren pentsamenduaren sortzaileetako batek- parte hartu du lan honetan, bereziki 1990eko obraren bidez.

Gogoeta horien emaitza gisa, ondorioztatu da ez dela existitzen *homo economicus* deritzona, bereziki ezaguna ekonomia eskoletan, zeinetan aurkezten baitute subjektu guztiz arrazional, berekoi, independente, buruaski, osasuntsu, ez gazteegi ez zaharregi, merkatuan beti aktibo eta ongizate pertsonala irabazi ekonomikoaren bidez soilik bilatzen duen gizakitzat. Prototipo horretatik urrun, pertsona guztiek dugu mendekotasuna eta behar dugu zaintza bizi osoan zehar, nahiz eta behar horren intentsitatea aldatu egiten den, jakina, bizitza zikloan barrena. Ukaezina da, halaber, batzuetan, zaintza behar handiagoa dugula; bestelako gaitasunak edo mendekotasuna duten pertsonen kasuan, adibidez, oro har. Mendekotasuna duten pertsonen zaintzak giza inbertsio handia eskatzen du, eta asistentzia horren zati handi bat emakumeek inolako ordainik jaso gabe egiten duten bitartean, lan hori maitasunaren edo txeraren berezko emaitza balitz bezala, lan hori generoagatiko berdintasunik ezaren iturri izango da, nabarmen (Nussbaum, 2012). Zaintza, oro har, eta menpeko pertsonen zaintza, bereziki, mende honetako auzi nagusietako bat izango da; ez alferrik zaintzaren mendea deritzo, dagoeneko, zirkuitu batzuetan.

Bitxia behintzat bada familia aztertzeko irizpide ekonomikoak oinarri hartzean (horixe egiten du Gary S. Becker ekonomiako Nobel saridunak *Familiaren ekonomia berria* lanean) familiako kide batzuei soilik egozte eragile ekonomikoen bizitza gidatzen duen berekoikeria, oso eskuzabaltzat hartzen baitira beste kide batzuk. “Beckerren familia” horretako elementu zalantzazkoenetakoa familiaren ongizatea edo baliagarritasunaren funtzioa da. Banakako funtzioak bateratu eta familiako kide guztien interesak adieraziko dituen funtzio bat eraikitzeko ezintasunaren aurrez aurre, altruismoaren teorema planteatzen du Beckerrek; teorema horren arabera, “familiaburuak” biltzen ditu gainerako kideen ongizatearen funtzioak, bere baliagarritasun funtzioan. Planteamendu horrek, familia interes-gatazkarik gabeko erakunde harmoniko baten gisa aurkezteaz gainera, gizabanako adierazgarri baten lehentasunen arabera onartuko luke talde-lehentasunen ordena, “diktadore onberaren” arabera. Beste era batera esanda, diktadore onbera familia antolaketaren molde patriarkal gailenaren isla besterik ez litzateke.

Diktadore onbera horrek eta familia portaera horrek, berez, kontra egiten diote ekonomia neoklasikoaren oinarrizko printzipio bati: indibidualismo metodologikoaren printzipioari, hain zuzen. Jakina, diktadore onbera etxean soilik litzateke hala, eta, etxetik irten orduko, Jekyll doktorearen eta Hyderen eraldaketa gogorarazten digun kasu bitxi bat bihurtuta, alde batera utziko luke onberatasun hori, esparru publiko merkantilean bere interes soil eta eskusiboa bilatzeko. Hala, “familia altruistak” bidea ematen du ez soilik emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik eza zilegitzeko, baizik eta baita uste hori merkatuan erabiltzerik ez dagoela justifikatzeko ere. Hala, indartu egiten da merkatuaren (zeinetan uste baita nork bere interesa bilatzen duela) eta familia idealaren (zeinetan nagusi baitira harmonia eta arau altruistak) arteko dualismo kontzeptuala. Ez dugu ukatuko izaki geurekoi eta arrazionalak garela, baina ezin onar dezakegu ezaugarri horiek gure bizitza goitik behera gobernatzeko dutela. Solidaritatea, osagarritasuna, justizia eta elkarrekikotasuna garrantzizko balioak dira espazio orotan, baita merkatuan ere.

**Etxeak** funtsezko eginkizuna izan arren -etxean bihurtzen baita, egunero, jarduera ekonomikoa ongizate-, etxeak ez dira beti espazio harmoniazko eta gatazkarik gabek, hala irudikatu badute ere ekonomista ospetsu batzuek, Beckerrek besteak beste. Etxeak, era berean, berdintasunik ezeko genero harremanek nabarmen markatutako espazioak ere badira, eta era horretako harremanak daude, besteak beste, emakumeen kontrako indarkeria-gertaeren oinarrian.

Analisiaren ardatza esparru merkantiletik haratago kokatzeak berarekin ekarri du ez soilik ordaindu gabeko lanen gaineko eztabaida zabaltzea, baizik eta baita enpresa kapitalistekin eta Estatuarekin batera baliabideak sortzen dituzten eragile guztieki-ko interes handiagoa izatea ere. Hala, bada, “bestelako ekonomia-molde batzuekiko” interes handia dago gaur egun; hala nola, ekonomia sozial eta solidarioarekiko edo landa ekonomiarekiko eta horiek ongizatea bilatzeko duten eginkizunarekiko interesa, adibidez. Finantzen eta ekonomiaren krisi garai honetan, indartzen eta egunerokotasuna hartzen ari dira mundu monetarioaren eta mundu ez-monetarioaren arteko muga tradizionalak ezabatzeko lanean diharduten eta pertsonen premiak ardatz dituzten esperientziak (kooperatibak, tokiko diruak, denbora bankuak...).


Ordaindu gabeko zaintza-lanei dagokienez, gaur egun, inork gutxik jartzen du zalantzan lan horiek pertsonen ongizateari begira duten garrantzia. Ildo horretatik, Garapen Ekonomikoaren eta Gizarte Aurrerabidearen Neurketaren Batzordearen Txostenaren (aurrerantzean Sarkozy Txostena) egileek aitortzen dutenez, “etxeek beren kabuz ekoizten dituzten zerbitzu asko eta asko ez dira kontuan hartzen diru-sarreraren eta ekoizpenaren adierazle ofizialetan, jarduera ekonomikoaren baitako garrantzi handiko alderdiak diren arren”. Hori dela eta, “komeni da askoz ere lan gehiago eta lan sistematikoagoak egitea horri buruz, bereziki, kontuan hartuta pertsonen denboraz egiten duten erabilerari buruzko informazioak, informazio horiek denboran eta espazioan konparatzeko” (Stiglitz, Sen eta Fitoussi 2009). Hortaz, lanaren kontzeptuaren gaineko eztabaidak zalantzan jarri du, halaber, **ongizatearen** kontzeptua, zeina lotu izan baitzaio, tradizioz, baliagarritasunaren maximizazioari eta per capita barne produktu gordinaren hazkundeari.

Iparraldeko herrialde askotan, aldaketa esanguratsuak gertatu dira azken hamarkadetan familiaren esparruko zaintzan, emakumeak lan merkatura sartzearekin zuzenean lotuta. Emakumeek utzi egin diote lanaldi osoz zaintza eginkizunak betetzeari, baina horrek ez ditu desagerrarazi lan ez-merkantilak. Askotariko erantzunak eman zaizkie aldaketa horiei, eta, horiek laburtu eta goian aipatutako eruedetan bilduz, esan dezakegu toki batzuetan (gutxi batzuetan) zaintza-zerbitzu publikoen hornidura nabarmen handitzea izan dela erantzun publikoa (Iparraldeko erueda); beste batzuetan, (praktikan, emakumeek) “kanpoko” eta “barneko” lana errazago uztartzeko neurrien aldeko apustua izan da erantzun publikoa (eusle nagusiaren eredu eraldatua); eta, azkenik, erantzun publiko argirik eman ez duten herrialdeetan, irtenbide pribatua eman zaio auziari, eta emakumeek lan mota bakoitzean lanaldi erdiz dihardute (lanaldi partzialeko amatasun enplegu erueda), edo lanaldi bikoitza edo hirukoitza egiten dute, edo senide sareak erabiltzen edo jendea kontratatzen da lan horietarako (emakume

pobreak, oro har, eta, sarritan, etorkinak) (eredu mediterranea) (Larrañaga, Jubeto eta de la Cal 2012).

Pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume etorkinak kontratatzeke joerak “zaintza-kate globalak” deritzen fenomenoak eragin du, beste globalizazio molde bat: alegia, zaintzen globalizazioa. Kate horietan, kate-begiak emakumeak dira, herrialde pobretuetakoak batik bat, Iparraldeko etxeetan zaintza eta arreta lanak egitera etorriak (Hegoaldeko herrialdeetan ere badira halakoak), beren seme-alabak beste emakume batzuen zaintzapean utzita, askotan, familiako beste emakume batzuen zaintzapean edo enplegu bila lekualdatu eta modu prekarioan kontratatutako emakumeen zaintzapean (Orozco, 2007, 2010). Zaintza-kate global horiek sortzeko, berebiziko eragina izan dute bi krisik: alde batetik, herrialde pobretuetako gizarte erreproduzioaren krisiak emakume eta gizon asko behartzen ditu emigratzera, baldintza material hobetan bizi ahal izateko aukera emango dieten diru-sarrereren bila; eta, bestetik, Iparraldeko herrialdeetako zaintzen krisiak deritzenak.

Giza **zaintzaren** zikloak etxeetan eta emakumeen lan ez-ordaindian oinarritu dira, baina ez dugu ahaztu behar -are gutxiago krisi, ziurgabetasun eta aldaketa garai hauetan- zaintza ez dela etxean soilik egiten, etxetik kanpo ere gauzatzen dela, eta zaintza horietan esku hartzen dutela sektore publikoak, enpresek nahiz ekonomia sozial eta solidarioko erakundeek. Are gehiago, esparru horien guztien arteko zaintzen artean oso lotura estuak daude, eta funtsezkoa da horiek aztertzea eta agerian uztea.



Garai nahasi honetan, bereziki garrantzizkoa da etxetik kanpo egiten diren zaintzak azpimarratzea, aldaketa garaiak baitira krisiak, eta oso litekeena baita arlo horretan zaintzaren lan kargak arlo publikotik etxeetara transferitzen aritzea, baina baita merkatura ere. Eztabaidagarria da etekin ekonomikoa lortzeko irizpideek araututako enpresek hartzea beren gain ongizaterako funtsezkoak diren zerbitzuen kudeaketa eta hornidura; eta are larriagoa, hornidura horretan oso epe laburrera begirako irizpideek araututako finantza entitateek parte hartzea. Ildo horretatik, behar-beharrezkoa da gogoeta egitea ekonomia sozial eta solidarioko entitateek, esaterako, zaintzen horniduran izan beharko luketen zereginari buruz.

## B. Berdintasunik ezak

Generoaren esparruko askotariko berdintasunik ezen artean, azpimarratzekoak dira arlo sozio-ekonomikoan (etxeko arlo produktiboan, zaintzan nahiz lan merkantilean) eta arlo politikoan (gure bizi-baldintzetan zuzenean eragiten duten erabaki politikoak hartzeko prozesuetako partaidetza maila) emakumeek jasaten duten diskriminazioa.


Berdintasunik gabeko **genero** harremanak lehentasunezko aldagai estruktural bat dira, mikro nahiz meso eta makro mailako dinamikak baldintzatzen baitituzte, gizarte prozesu guztiei eragiten dieten eta sistema sozioekonomikoaren osotasuna antolatzen duten heinean. **Mikro mailari** dagokionez, generoak etxeen eta enpresen prozesu indibidualei eragiten die. **Etxeko esparruari loturik**, Amartya Senek, adibidez, planteatzen du etxeko unitatea lankidetzeta eta gatazka gunea dela. Lankidetzeta gauzatzen baita familiaren ongizatean laguntzen denean. Jarduera askok dute eragina etxearen oparotasunean (diru-sarrerak, laboreak, etxeko lanak...). Hala ere, gatazka nabarmenago ikusten da denboraren banaketan, aktiboen eskuragarritasun eta kontrolean, jardueretan eta horien gaineko erabakietan, eta, hala, azken buruko erabakiek etxeko kideen negoziazio ahalmena islatzen dute.

**Meso mailan**, lan merkatuen funtzionamendua baldintzatzen du generoak; izan ere, sexukako banaketaren eraginez, enplegu aukerak eta baldintzak ez dira berdinak eta berdintasunezkoak. Emakumeen lana funtsezkoa izan da autonomia ekonomikoari begira; enplegua baita, gehienetan, beharrezkoak zaizkigun ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko behar ditugun diru-sarrerak lortzeko iturri nagusia (eta bakarra). Emakumeak, ordea, ez dira berdintasunezko baldintzetan sartu lan merkatura, eta, hain zuzen ere, lan arloko berdintasunik eza da emakumeen kontrako diskriminazioaren erakusgarri argi eta unibertsalenetakoa. Aipatu beharra dago lanari buruzko analisia genero ikuspegitik egiten dugunean, gure ikuspegitik egin ohi dugula: alegia, Europako ikuspegitik. Hala, enpleguari buruz ari garenean, soldatapeko enpleguari buruz aritzen gara, modu esplizituan nahiz implizituan, gure ingurunean oso orokortuta dagoelako; baina ez dugu ahaztu behar inola ere ez dela hain orokorra Hegoaldean. Askorentzat, “enplegua” hitzak iradokitzen du gizon langile baten irudia, enplegatzaile bat duena, hori ere gizona, eta soldata erregular bat kobratzen duena. Herrialde pobretuenetako langile gizonetzko nahiz emakumezko gehienak, ordea, enplegatzailearen eta enplegatuaren artean eratzen den harremanen esparrutik kanpo daude.

Enplegua izateak berebiziko garrantzia du gizon-emakume gehientzat, lehenik eta behin, baliabide ekonomikoen iturri delako. Gurearen moduko gizarteetan, ordea, enplegua diru-sarreren iturri bat baino askoz ere gehiago da, eta errenta gabeziatik askoz ere urrunago doa enplegurik eza: identitate galera, frustrazioa, depresioa, etab.

Emakumeen eta eskualdeen artean alde handiak dauden arren, badira oro har komuntzat har daitezkeen ezaugarri batzuk, honako hauek, hain zuzen ere:





**Makro mailan**, Barne Produktu Gordinaren (BPG) moduko agregatu makroekonomiko handiek ekonomiaren ulerkera oso estu eta maskulinoari erantzuten diote, alde batetik; eta, bestetik, makro mailako politika handiak -hala nola, zerga politikak, gizarte politikak, interes tipoak, merkataritza politikak, etab.- ez dira neutralak generoari dagokionez. Eta ez dira neutralak, jendearen bizitza baldintzatzen eta hartan eragiten dutelako, eta, gizonen eta **emakumeen baldintza eta posizioak** berdinak ez direnez, politikek ere ez dute eragin bera batzuegan eta besteengan. Baina makro mailako erabakiek mikro mailan eragiten dute bezala, makro mailan eragina izan dezakete mikro mailako erabakiek ere.

Sarritan, generoen araberako rolak eta estereotipoak ezkututzen dira maila orotan hartzen diren erabakien atzean, eta berebiziko eragina dute, oraindik ere. Estereotipoen eraginez, lan jakin batzuetarako egokiak eta beste lan batzuetarako garestiegiak dira emakumeak; gai pribatuekiko interes handiagoa eta publikoekiko txikiagoa dute; bestelako lan eta lidergo estiloa dute, etab. Estereotipoen garrantzia eta indarra oso aintzat hartzeko kontua da. Estereotipo horiek, zeinak pertsonen kontrolpetik at baitaude, berdintasunik eza iraunarazten dute, gizarteko gainerako kideekiko elkarreraginaren nondik norakoak baldintzatzen dituztenez eta elkarreragin horietan eragiten dutenez. Latinoamerikari eta Kariberi buruzko Eskualde Txostenean esaten denez (GNBP ALC 2010), “estereotipoen mehatxuei” buruzko ikerketek agerian uzten dute pertsonak zeregin espezifikoetan

duen errendimendua jaitzi egiten dela azpimarratuz gero gizarte estereotipoen arabera zeregin horiek egiteko gaitasun txikiagoa duten talde bateko kideak direla, ustez. Aztertutako kasuetan, dokumentatuta geratu da afro jatorriko pertsonen errendimendu apalagoa dutela trebetasun intelektualak neurtzeko probetan eta emakumeek emaitza erlatibo apalak dituztela matematikako probetan, baldin eta proba horiek egin aurreko uneetan azpimarratzen bada etnia edo sexu jakin horietako kide direla, hurrenez hurren. Estereotipoen iraunkortasuna eta horiek ezabatzeko zailtasuna ikusita, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala lortzeko oinarritzeko ardatz gisa planteatu zuen Europako Batzordeak (2007) estereotipoen kontrako borroka.

Nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar emakumeek eta gizonen posizio berdina ez duten bezala, ez dagoela homogeneotasunik, halaber, emakumeen eta gizonen kolektiboan artean. Nabarmendu beharra dago emakumeen **dibertsitatea** (baita gizonena ere), sarritan homogeneotzat eta estereotipatutzat agertzen baitira, eta, genero berdintasunik ez aztertzeke garaian, estatistikak erabili ohi direlako, batez besteko balioak adierazten dituzten indize hutsak, askotariko errealitateak ezkututzen dituztenak. Emakumeen egoera ez da berdina herrialde eta eskualde guztietan, baina tokian-tokian ere nabarmentzen da baliabideak eskuratzeko, eskubideak erabat gauzatzeko eta abarretarako berdintasunik eza. Emakumeen arteko berdintasun ezak zalantzan jartzen ditu “emakumei” interes bakarrak egozten dizkieten diskurtsoak. Are gehiago: gure ustez, emakumeen interes batzuk elkarri kontrajarriak dira.

Jakina, genero berdintasun ezaz gainera, beste arlo askotako berdintasun eza ere bada, adinaren, jatorriaren, etniaren, gizarte klasearen eta abarren ondoriozkoak esaterako. Hori dela eta, saihestu egin behar da orokortzea, baita, ahal den neurrian, emakumeak (eta gizonak) kolektibo trinko bat balira bezala hartzea ere. Are gehiago: emakumeen arteko berdintasun ezak beti izan dira handiak, gero eta handiagoak, eta gaur egungoaren moduko krisiek areagotu egin ditzakete, gainera, desberdintasun horiek. Ekonomia feministak gizarte berdinaragoetara jotzeko egiten duen apustuak emakume ahulenekiko interesa sortu eta talde horietan oinarrituriko ikerketak sustatu beharko lituzke.

### C. Gizarte eraldaketa eta politika publikoak

Pentsamendu feministak garrantzi handia ematen dio berdintasun ezak ulertzeari, horiek gainditzeko xedez, jakina. Gizarte eraldaketa bilatzen da, pertsonak ongi eta gizarte berdina eta justuagoetan bizitzeko baldintzak sortuko dituen ekonomia baten bidez.

Edonola ere, genero ikuspegitik egiten diren ekarpenak eta analisiak tokiko errealitatearen testuinguruan kokatu behar dira, ezagutza ez baita sortzen ezerezaren gainean, nonbaiten kokatuta baizik; alegia, une historiko jakin bateko ingurune ekonomiko eta sozialak zehazten du ezagutza, eta, esan beharrik ez dago, errealitateak, tokikoak nahiz globalak, aldakorak dira, are gehiago krisi garaietan. Horrek guztiak lotura estua du ikerketa honetako beste dokumentu batzuetan garatutako globala/tokikoa eztabaidarekin.

Garrantzi handikoa da, beraz, pentsamendua sortzearen eta eraldaketarako ekintzaren arteko elkarrengaitza. Ildo horretatik, ohikoa izaten da teoria Iparraldean ekoiztea eta

Hegoaldean kontsumitzea, non bilatu baita teoria instrumentalizatzea eta aplikatzea (León 2009), aitortu beharra badago ere azken urteetan aldaketa jakingarriak sumatu direla eta hausten ari dela Iparraldearen monopolioa, analisirako tresnak eta proposamen politikoak lantzeari dagokionez. Aurrerapen itzela da hori, zalantzarik gabe; izan ere, ekonomia feministak pentsamendu ekonomikoaren beste joera batzuen kutsu androzentrikoa agerian utzi badu ere eta kutsu horiek iraultzearen alde borrokatu bada ere, litekeena da beste kutsu batzuk eragin izana eta ekonomia feminista profil jakin bateko emakumeetan oinarriturik garatu (zuriak, Iparraldekoak, heterosexuak, etab.) eta joera hori aurkeztu izana joera unibertsal eta objektibo gisa. Horren adibidea izan daiteke enpleguaren ideia (eta, horrekin batera, ordaindutako eta ordaindu gabeko lanaren arteko bereizketarena), askoz ere gehiago egokitzen baitaio ideia hori lan ordutegiak argi zehaztuta dituzten klase ertaineko Mendebaldeko emakumeen esperientziari, Hegoaldeko emakume pobre askorenari baino. Hau da, ordaindu gabeko lanari eta lan horren eta lan merkantilaren arteko harremanari buruzko ekoizpen akademikoak oinarri hartu duen enpleguaren kontzeptua bat dator Iparraldeko herrialdeetakoarekin, nagusiki. Horren ondorioz, esparru merkantilaren eta ez-merkantilaren arteko erlazioak ulertzeko orokortu diren tresna jakin batzuk ere egokiagoak dira herrialde jakin batzuen errealitatea islatzeko, beste herrialde batzuenak islatzeko baino. Antzera gertatzen da zaintzan esku hartzen duten agenteak identifikatzean: etxeaz, enpresez eta estatuaz dihardugu beti, baina, sarritan, ahaztu egiten dugu komunitateek zaintza ematen zer-nolako eginkizuna duten. Arlo komunitarioa “ahazte” hori gaur egungo gure bizimoduarekin lotuta dago, seguru asko.

Zalantza sortzen da, beraz, ekonomia feministaren ikuspegitik egindako ekoizpen akademikoak ez ote dituen izango atxikita kutsu jakin batzuk, agian klasistak eta etnozentrismoak. Kutsu horiek agerian uzteak ez du ahultasuna adierazten, koherentzia baizik, testuinguruaren garrantziaren ideiarekiko koherentzia; eta oso aberasgarria izan daiteke, beste errealitate batzuk aipatzea baita “beste mundu posible batzuetan pentsatzeko aukeren sorta zabaltzeko bide bakarra” (NBE Emakumeak 2012).

Emakumeen eta gizonen errealitateen arteko berdintasun ezak kolokan jarri du politika publikoen neutraltasuna, politika horiek emakumeen eta gizonen arteko harremanetan eragiten dutela jotzen den heinean. Hala izanik, genero berdintasunerako onuragarriak izango diren politikak sustatu beharko dira, ongizatearen eta garapenaren funtsezko elementua baita ongizatea, eta ez bigarren mailako emaitza. Eta, hain zuzen ere, garapenerako lankidetzaren arloan sortu zen, 70eko hamarkadaren hasieran, politikak genero harremanen ikuspegitik neutralak ote ziren planteatzen zuen eztabaida.

## 1.2. Ekarpen ekofeministak

Ekofeministentzat, ikuspegi ekologikotik ezinezkoa da hazkunde ekonomikoaren eta garapenaren bidez berdintasuna lortzea emakumeentzat, langile klasearentzat eta arrazarengatik eta (neo) kolonialismoaren bidez zapaldutako herrirentzat.

(Mellor 1993; Mies eta Shiva 1993)

Hamarkada batzuetatik hona planetak bizi duen krisi ekologikoa dela eta -krisi hori bizkor handitzen ari da, gainera, nazioarteko erakundeek eta munduko gobernu askok ez dutelako neurririk hartzen ekoizpen, banaketa eta kontsumo ereduak aldatzeko-, elkarrengandik gero eta hurbilago daude proposamen feministak eta ekologistak. Análisi ekonomikoaren erdigunean bizitzaren iraunkortasuna eta emakumeen eta gizonen arteko harremanak jartzen dituen planteamendu feminista puntu askotan dator bat planteamendu ekologistaren planetako bizitzaren aldeko apustuarekin, planetako parte izateaz gainera haren gaur egungo jitoan eragin nabarmena duen espeziea garen heinean. Gure ustez, balio handiko gogoetak egin ditu ekofeminismoak análisis hauetan, eta jarraian laburbildu egingo ditugu gogoeta horietako batzuk.

Ekofeminismoa XX. mendeko 70eko hamarkadaren erdialdera sortu zen, sistema ekonomiko gailenari kritika egiten zion gizarte mugimendu gisa, 60ko hamarkadako feminismoaren oldearen eta garai hartako mugimendu ekologistaren haritik. Mary Melorren<sup>5</sup> hitzetan (2005), ekofeminismoa “mundu naturalaren ustiapenaren eta degradazioaren eta emakumeen mendekotasun eta zapalkuntzaren arteko lotura bilatzen duen mugimendua da”. Hala, mugimendu ekologistaren eta feministaren hainbat elementu bildu ditu, eta erronka jo die batari nahiz besteari. Vandana Shivaren arabera, ekofeminismoa filosofia eta praktika feminista bat da, zeinaren arabera sistema “eratu zen, eratzen den eta irauten duen emakumeak azpiratuz, herri ‘atzeritarrak’ eta haien lurak nahiz natura kolonizatuz”, eta, hala, txanpon beraren bi aurpegitzat ditu emakumeen mendekotasuna eta naturaren ustiapena: bizitza etekin ekonomikoak lortzeko lehentasunaren mende jartzearen bi aurpegi, alegia.

Ekofeministek osotasun interkonektatu eta interdependente modura ikusten dute mundu naturala, eta genero berdintasun eza txertatzen dute krisi ekologikoei buruzko beren analisisetan, gizonak eta emakumeek mundu naturalarekiko erlazio bera ez dutela kontuan hartuta. Inpaktu ekologikoei askotariko moduetan eragiten diete gorputzei, eta, emakumeek ugalketarako gaitasuna dutela kontuan hartuta, haiengan ondorio bereziak ditu jarduera kapitalistak, besteak beste kutsadurak; eta, ildo horretatik, kontzienteagoak dira (edo izan daitezke) ekologiaren gorabeherak giza gorputzetan eta, beraz, gure bizi-kalitatean dituzten ondorioez.

Lehen hamarkadetako gogoeta ekofeministetan, jarrera batzuk zalantzan jarri izan dira, unibertsalismo esentzialistarako joera zutelako, egile batzuek esaten baitzuten harreman berezi eta ia baztertzalea zegoela emakumeen eta mundu naturalaren artean, bizitza ematen dutenak emakumeak diren heinean. Emakumeak nahiz natura esentzializatzearen eta naturalizatzearen gaineko arbuioa eta beldurra ekarri du horrek. Baina erresistentzia horiek eragina izan dute feminismo erradikal/kultural eta espiritualtasun feministakoan nahiz feminismo materialistan edo sozialistan oinarrituriko ekofeminismoan, kontuan hartu gabe ekofeminismoaren baitako joerak eta ikuspegi askotarikoak.


<sup>5</sup> Atal hau Mary Mellorren (2000) liburu honetan oinarritua da: *Feminismo y ecología*, Siglo XXI.

Gorabeherak gorabehera, ekofeministek bat egiten dute sistema kapitalistaren baitan berdintasuna emakumeentzako hazkunde ekonomikoaren eta “garapenaren” bidez aldarrikatzen duen feminismoaren kritikan, ezinezkoa baita halako berdintasunik lortzea ekologiaren ikuspuntutik (Mellor 1993; Mies eta Shiva 1993). Era berean, ekofeministek diote gizadia osagai duen mundu naturalak bere dinamika propioa duela, giza “eraikuntzaz” edo kontrolaz haratago.

Sistema ekonomiko kapitalistari egiten dizkioten kritiketan, azpimarratzekoak dira produktu eta hondakin industrial toxikoek osasunean eta bizitzan dituzten ondorioei buruzkoak (nekazaritzako pestizida kimikoak, hondakin nuklearrak, industria militarra...); eta kritika horiek Iparraldeko mugimendu ekofeministaren parte adierazgarri baten borrokaren xede izan dira. Hegoaldean, aldarrikapenetan tarte handiagoa eman diete ur garbiaren eskuragarritasunari, jaki osungarrien eskuragarritasunari, zuhaitz eta basoei eta bestelako ondasun komun batzuei, zeinaren pribatizazioak eta, batzuetan, suntsipenak bizkortzen baititu komunitate osoen pobrezia eta gaixotasuna.

Oro har, Hegoaldeko ekofeministak nabarmendu dira Iparraldetik esportatutako garapen gaiztoa zalantzan jartzen, milioika emakumeren egunerokotasunean izan dituen zuzeneko ondorioetan oinarrituta. Shivaren arabera, esaterako, honako puntu hau du oinarri ekofeminismoak: “Hegoaldeko landako emakume pobreentzat, eguneroko bizitzaren errealitatean daude mundu naturalarekiko loturak: borroka oro da borroka ekologikoa” (1989), haiek direlako, ingurumena bezalaxe, prozesu desarrollisten kostua beren bizkar daramatenak. Era berean, arazo ekologikoak larritzen aritzearekin kezkatuta dauden emakumeek zalantzan jartzen eta kontuan hartzen dituzte prozesu horien, arrazakeriaren eta emakumeen ordezkaritza ezaren arteko loturak.

Analisi horietan, intereseko elementua da desarrollismo harrapakariaren jardunbide okerrak gainditzeko proposamenetako **partaidetzaren osagaia**. Ekofeminismoaren baitako ikuspegi askotarikoak bat datoz emakumeen eta naturaren artean dauden loturei buruz, eta halaber diote gizakiak mundu ekologikoaren kide garela, haren parte garenez. Nolanahi ere, emakumeek eta gizonak garatu ditugun gizarte harremanek eragina izan dute planetako gainerako izakiekin dugun erlazioan. Eta, hori dela eta, testuinguru geografiko bakoitzerako **gizarte eta ekonomia errealitateen analisiak** eskatzen dituzte, kontuan hartuko dituztenak talde bakoitzaren baitako emakumeen eta gizonen subjektibotasunen hainbat alderdiren arteko uztarketa eta horien baitako botere harremanak, elementu horiek guztiak oso adierazgarriak baitira jakiteko, ez soilik nola kokatzen diren ingurumenean, baizik eta zer aukera dauden haien **ahotsak eta eskariak aintzat hartzeko** eta gaur egun ditugun arazo ekologiko larriak aldatzea lortzeko.



Hala, TGG-gaitasunen ikuspegiari buruzko analisi eta proposamenek arreta berezia jarri behar diete bere ondasun eta espazio komunalak, baliabideak, bizibideak, askatasunak, duintasuna, identitatea eta bakea aldarrikatzen dituzten emakumeen eta gizonen jarduera askotariko eta ugari, ezin hobeto islatzen baitituzte planetan bizirik dauden kulturak, eta gako adierazgarriak ematen baitizkigute ulertzeko nola antolatu nahi dituzten beren bizitzak alderdi politiko, ekonomiko eta kulturaletik (Shiva 2006).

Laburbilduta, krisi ekologikoaren eta krisi sozialen gordintasunak feminismoaren eta ekologismoaren arteko elkarriketa ahalbidetu du, emakume pobretuenek duten eginkizun eta zaintzen zama gehiegia ez ezik -emakume horiek ari baitira hurrenez hurreneko krisiak modurik latzenezan jasaten-. Komunikazio horren emaitza gisa, ekologiaren ikuspegitik arriskuan dauden mundu honetako emakumeen eta gizarte eraldaketarako duten gaitasunen jabeak xede duten ekarpenak eratorri dira gogoeta ekofeministetatik. Ikaskuntza horiek bereziki adierazgarriak izan daitezke gaitasunen ikuspegi sakontzeko, munduan emakume asko ahotsa altxatzen ari baitira askotariko moldeak hartzen dituen desarrollismoak bultzatuta (neo-erauzketa, basoak, lurra, ura... pribatizatzea) habitata eta bizimodua suntsitzen ari diren prozesu txikitzaileen kontra. Testuinguru horretan, kontuan izan behar dugu “garapena” terminoa tentu handiz erabili beharra dagoela, askotan identifikatu ohi baita kontzeptu hori garapen gaiztoarekin eta desarrollismo txikitzailearekin, zeinak mundu naturala suntsitzen baitu eta gizon-emakumeak esplotatzen baititu; eta, hain zuzen ere, gero eta indar gehiagoz arbuiatzen den sistema azpiratzaile kapitalista, patriarkal eta arrazista baten ondorioak jasaten ditu jendeak.

### 1.3. Postkolonialismo feministaren ekarpenak

Auzi amaigabea eta, beste kultura batzuetako emakumeen ikuspegitik, gutxi edo gaizki landua da identitateak osatzen dituzten ardatzen arteko gurutzatzea (arraza, etnia, klasea, sexu joera eta bestelakoak), eta Mendebaldeko feminismoaren arrazakeria eta klasismoa oraindik konpondu gabeko akatsak direla berresten du horrek, itxuraz.

Lorente (2005)

Europako egileek (edo europar kolonietan sortu eta metropolietan hezitakoek) eta Ipar Amerikako egileek sustatu duten garapenaren ekonomiaren parte handi baten ezaugarri nagusietakoa izan da, hainbat hamarkadaz, Hegoaldeko herrialdeak izate txikiagotzat hartu izana, Iparraldeak “garapenera” eta “aurrerabidera” egindako bide bera egin beharko zutela jotzea, hango urrats eta prozesu berberei jarraituz. Duela urte askotatik kritikatu ohi da ikuspegi hori, baina, oraindik ere, indarrean dago Iparraldean garatzen den ezagutzaren nagusitasunaren halako sentimendu bat garapenerako nazioarteko erakundeetan eta akademian, eta “besteen” gaineko iritzietan ere agertzen da kutsu hori, garai kolonialeko pentsamolde ereduena isla gisa. Hala, Hegoalde globaleko gero eta egile gehiago mintzo dira “**boterearen kolonialtasunaz**”, adierazteko konkistaz gero indarrean egondako boterearen eredu hegemoniko globala, zeinak artikulatzen baititu arraza eta laborea, espazioa eta jendea, kapitalaren beharren arabera eta europar zuri onurarako (Quijano 1992; Escobar 2007). Kritika horrek elkarri lotzen dizkio ekoizpen molde kapitalistak eta kolonietan hainbat mendez nagusitutako arrazakeria, zeinak iraun baitu estatu independenteetako elite gailenetan eta zabaldu baita gainerako gizarte geruzetara, hura delako gizarte ehuna blaitzen duen pentsamolde hegemonikoa.

Era horretako gogoetaz elikatzen da pentsamendu **postkoloniala**, eta planetako gainerako kontinenteetako herriak konkistatu dituzten europarrek inbasioen ondoren ezarritako azpiratze harremanak salatzen ditu. Konkista horietan, azpiratze-harreman sozial batzuk taxutuz joan ziren, eta, bide horretatik, “haien osagai ziren heinean zegozkien hierarkia, toki eta gizarte rolei eta, ondorioz, ezartzen zen azpiratze kolonialaren ereduari atxikitako identitateak sortu zituzten” (...) Arraza eta arraza-identitatea herriarren oinarrizko sailkapen sozialerako tresna modura ezarri ziren” (Quijano 2000), eta konkistek eratutako azpiratze erlazioei zilegitasuna emateko erabili ziren.

Amerikaren kolonizazioaz eta gainerako kontinenteetarako zabalkundeaz geroztik, “ezagutzaren ikuspegi eurozentrikoa” landu zen, eta hartan oinarriturik eraiki zen **arrazaren** ideia, europarren eta ez-europarren arteko azpiratze-harreman kolonial horien naturalizazio modura. Eraikuntza teoriko horiek baliatuta zilegitu nahi izan ziren menderatuen eta menderatzaileen arteko gailentasun/apaltasun erlazioei loturiko antzinako ideiak eta jokaerak. Kulturen arteko giza harremanen ikuspegi hierarkizatua horrek badu beste mendekotasun tresna bat atxikita, hura baino are antzinakoagoa: mendekotasun inter-sexualarena edo **generokoarena** (Quijano 2000).

Emakume afroamerikar feministek, bestalde, beren analisi propioak egiten dituzte pentsamolde kolonialaren ondorio arrazistei buruz, XX. mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetan AEBn zabaltzen ari zen feminismo liberala aztertzean. Emakume horiek ez dira identifikatzen Ipar Amerikako emakume zuri burgesen (beren bizimoduarekin gogobeteta ez zeudenen) feminismoarekin, emakume haiek ez baitzituzten beren idatzietan salatzen Estatu Batuetako emakume beltzek jasaten zituzten hainbat zapalkuntza molde, nahiz eta beste errealitate eta arazo batzuk baztertzeko zituen analisi ustez global homogeneousatzaile bat egin. Gogoeta horiek bultzatuta, aldarrikatzen dute genero zapalkuntzak ezin zituela emakume guztiak berdindu, badirelako osotasunean azertu beharreko emakume-talde jakin batzuen kontrako zapalkuntza espezifiko batzuk. Hala, 1983an, bell hooks egileak (Gloria Watkinsen ezizena) *Aint I a Woman?* idatzi zuen (Sejourney Truth abolizionisaren diskurtso batean oinarriturik), eta idatzi horretan ukatu zuen bere ustez feminismo garaikidean indarrean dirauen ideia bat, zeinaren arabera patriarkatua baita arazo guztien erroa eta zapalkuntza sexista ezabatzeko nahitaz ekarriko bailuke gainerako zapalkuntza moldeak desagertzea. Haren ustez, eta uste horrekin bat egin zuten, gerora, beste egile askok, patriarkatuaz hitz egin ez eta arrazakeriaz hitz egin gabe, feminista zuriak esplotatzaile eta zapaltzaile izaten jarraitzen dute. Elkarri uztartutako zapalkuntza sistemak dira **sexismoa, arrazismoa eta klaseko esplotazioa**; arraza, sexua eta klasearen “paradigmak” zehazten du identitate femeninoaren estatusa, eta ez soilik sexuak.

Tradizio feminista beltz horretan -zeinaren parte baitira, besteak beste, Angela Davis, Alice Walker, Audre Lorde, Patricia Hill Collins eta Barbara Smith egileak- nabarmentzekoa da *Emakume guztiak dira zuriak, beltz guztiak dira gizonak, baina gutako batzuk emakume ausartak gara*<sup>6</sup> antologia, zeina funtsezko materiala baita egile horiek zapalkuntza sistemen arteko elkarreaginei buruz egiten dituzten salaketak eta proposamenak ezagutzeko.

Egile horiekin batera, badira beste jatorri etniko batzuetako emakumeak, mestizoak, *chicanoak* eta latinoak, oro har, zeinentzat beharrezkoa baita “mugetatik eta mugek zeharkatutako feminismoak egitea”, kontuan hartuta nolako elkarketa konplexuak osatzen dituzten zuriak, burgesak, heterosexualak eta urbanoak ez diren emakumeek jasaten dituzten mendekotasun erlazioek. “**Mugetako feminismo**” horiek klase-erlazioak, arrazismoa, lesbofobia eta kolonizazioaren, deskolonizazioaren nahiz nazioez haragoko migrazioen ondorioak<sup>7</sup> aztertzen dituzte, besteak beste, genero erlazioekin batera.

Liliana Suárez Navaz eta Rosalva Aída Hernández Castillok *Descolonizando el Feminismo: Teorías y Prácticas desde los Márgenes* talde-liburuaren aurkezpenean azaldutakoari helduz, esan liteke **feminismo postkolonialaren** xedea dela azpiratze-oinordekotzak zalantzan jarriko dituen espazio politiko bat sortzeko premiari erantzutea, erresistentzia posibleen bestelako kartografia batzuk imajinatzeko aukera eman dezan, era be-

<sup>6</sup> Ibidem, 11.

<sup>7</sup> Eskalera karakola (2004): “Prólogo”, honako honetan: Hooks, bell, et al. *Otras inapropiables. Feminismos desde las fronteras*. Traficantes de sueños.



rean. Feminista horien asmoa da “komunikazio zubiak eraikitzea literatura feminista akademikoan behar adinako islarik izan ez duten tradizioen artean, literatura horretan hegemonia izan baitute Estatu Batuetako eta Europako ekoizpen teorikoek. Ekarpene horiek zalantzan jartzen dituzte ikuspegi feminista etnozentrikoak, kontuan hartzen ez zituztenak generoaren eta arrazaren arteko lotura, edo identitate kulturalen eta genero identitateen artekoa, ezta arrazakeriaren, inperialismoaren eta ideologia eta jardunbide patriarkalen arteko lotura estuak ere (Suárez eta Hernández 2004)”.

Egile horien kritiken artean, azpimarratzekoa da Iparraldeko pentsamoldeak Hegoaldeko emakumei buruz duen ikuspegi desitxuratuaren kritika, feminismo liberalarena barne. Hala, Mohanty dioenez, adibidez, Mendebaldeko feminismoak “Hirugarren Munduko emakume’ konposatu eta berezi bat sortu nahi izan du; arbitrarioki eraikia dirudien irudi bat, baina Mendebaldeko diskurtso humanistaren sinadura baimentzailea daramana” (Mohanty 1987). Era berean, Mendebaldeko mundu akademikoak Hirugarren Munduko emakumearen estereotipo bat sortu du, “beste” bereizi bat, bere generoagatik nahiz azpigarapenagatik zapaldua.

Kezka aipagarria dute, halaber, aitortza eta birbanaketarekiko; feminista postkolonial askoren garapen intelektualaren oinarrian Edward Said, Homi Bhabha eta Gayatri Chakravorty Spivak pentsalarien proposamen teorikoak daude, zeinetan sumatzen baita **inperialismoaren, kolonialismoaren eta arrazakeriaren** ondorioak aztertzeko interesa, haien adierazpen testual eta diskurtsiboak ikertzeko interesa, baita ezagutzabotere molde horiek sortzen dituzten erresistentzia estrategiak ikertzekoa ere. Ildo horretatik, Mohanty nahiz Al Saadawik elkarketa horietan kokatu dituzte analisi feministak, kapitalismo global, heteropatriarkal eta arrazistak askotariko azpiratzeak jasaten dituzten emakume-taldeei eragiten dien zapalkuntzaren konplexutasuna erakusteko ahaleginean.

Joera feminista horien baitako egile askok deskolonizazioaren alde egindako lanak barne hartzen du ez Mendebaldean ekoiztako ezagutza soilik, “baizik eta emakume horiek parte hartzen duten mugimendu politikoen baitan bertan ekoiztako ere, kolonizatzaileen irudikapenak eta bazterketak erreproduzitzeko joera izan baitute askotan mugimendu horiek” (Suárez eta Hernández 2004). Postkolonialismoak “**barne kolonialismoa**” salatzen du, beraz; hau da, kultura bat beste bati gailentzea, arrazionaltasun bat, instituzionalitate bat eta, oro har, gizarte sistema bat beste arrazionaltasun batzuei eta gizarte-bizitza erreproduzitzeko beste sistema batzuei gailentzea<sup>8</sup>.

“Feminismo beltzaren” lorpenen artean daude agenda feministan txertatu izana “gainerako bereizketa ardatzen gaintik adibidez klasearen edo generoaren nagusitasuna azpimarratzen duten hurbilketa diskurtsiboen zabaltzea”, “kolokan jartzen duelako adierazle pribilegiadun horien eraikuntza, muin bateratu autonomo gisa” (Avtar Brath 2004, honako honetan aipatua: Quiroz 2011). Ildo horretatik, feminismoa ez ezik, gizarte eraldaketarako aukerak eta gizarte analisiak ere aberastu dituzte muga-identitatei

<sup>8</sup> Chávez, Patricia et al. (2011): *Despatriarcalizar para descolonizar la gestión pública*. Cuadernos para el debate y la descolonización. Bolivia.

buruz egin dituzten gogoetek, baita kolonialismoa garai historiko baten modura ulertu ordez hainbat jakintza motaren arteko botere harreman gisa ulertzeko proposamena eta gure feminismoak dibertsitatea aitortuz birplanteatzeko deiak ere, kontuan hartuta diferentzia batzuk emakumeek emakumeengan izandako azpiratze-erlazioen emaitza izan direla edo direla. Arraza, sexu edo gizarte diferentziak arlo politiko eta ideologikoan kontzeptualizatu behar dira, eta ez norbanakoaren kontzientzian soilik.

9. irudia. Postkolonialismo feministaren ekarpen kritikoak
“Boterearen kolonialitatea” kritikatzan du, konkistaz gero ezarri eta arraza eta laborea, espazioa eta jendea artikulatzen dituen botere erdu hegemoniko globala den aldetik
<ul style="list-style-type: none"><li>• Arrazaren ideia azpiratze-harreman kolonialen naturalizazio gisa eraikitzea ekarri zuen “ezagutzaren ikuspegi eurozentrikoa” kritikatzan du.</li><li>• Generoa ezinbesteko azpiratze-tresna izan da giza harreman hierarkizatuak finkatzeko.</li></ul>
Iparraldeko emakume zuri burgesek sustatutako feminismoa kritikatzan du, ustez analisi globalak egiten dituelako, errealitate problematikoak kontuan hartu gabe
<ul style="list-style-type: none"><li>• Ukatu egiten dute arazo guztien erroa patriakartua denik eta sexu zapalkuntza ezabatzeak gainerako zapalkuntza moldeak ezabatzea ekarriko lukeenik.</li><li>• Arraza, etnia, sexu eta klasearen “paradigmak”, ez soilik sexuak, zehazten du identitate femeninoaren estatusa.</li></ul>

Mugako pentsamoldea bat dator emakume beltzen pentsamendu kritikoarekin, arrazaren eta generoaren elkargunea hartzen duen heinean kolonialitatearen gunetzat. Haien irakurketa kritikoek eta proposamenek gure ustez gizarte errealitateak aztertze-ko garaian kontuan hartu beharreko ikaskuntzak biltzen dituzte, gogoetarako proposatzen ditugun honako hauek, esaterako:

- Kultura eta identitateak sistema politiko eta ekonomiko globala kontuan hartu gabe ulertzen saiatzeak azpiratze neokoloniala iraunarazten du.
- “Bestea” aztergai duten kulturari eta identitateari buruzko ikerketetan, joera zabalduena da Iparralde eta Hegoalde estatikoen arteko desberdintasunak polarizatzea, bi kategoria horien baitako espezifikotasunak alde batera utzita.
- Identitate estereotipoak homogeneizatzeko joera da nazioarteko lankidetzaren esparruan gehien erabiltzen den erduetakoa, bereziki genero eta garapenari buruzko programetan.

Laburbilduz, feminismo postkoloniala ez da ikerketa postkolonialen azpimultzo bat edo feminismoaren aldaera huts bat. Esku-hartze bat da, ikerketa postkolonialen nahiz feministen konfigurazioa aldarazten ari den esku-hartze bat. Feminismo postkolonialak aztertzen ditu kolonialismoak eta neokolonialismoak emakumeen bizitzako orotariko testuinguruetan (haien subjektibotasunak, lana, sexualitatea eta eskubideak barne) generoarekin, nazioarekin, klasearekin, arrazarekin eta sexualitateekin dituen elkarguneak, eta horrek, jakina, diziplinaz haragoko analisisa eskatzen du.

#### 1.4. Instituzionalismo erradikalaren ekarpenak

Kulturaz azpiko estadio barbaroetan hasten da emakumeen jabetza, itxuraz, emakume presoen bahiketarekin (...)  
Emakumeen jabetzatik, jabetza kontzeptua hedatu egiten da haien industriaren produktuak barne hartzeraino, eta hortik sortzen da jabetza, gauzena nahiz pertsonena.

Thorstein Veblen (1899)

Emakumeek bizi dituzten askotariko diskriminazioen erreproduzio moldeak eta epe ertainera begira horiek ezabatzeko zailtasunak ulertzeko xedez, eskola instituzionalista zaharrak eta gerora instituzionalismo erradikalak egindako ekarpenek tresna sorta bat eskaintzen digute ikuspegi eboluzionista eta eraldatzaile batean kokatzeko Tokiko Giza Garapeneko prozesuak (eta horietara iristeko erresistentziak).

Instituzionalismo zaharra deritzonaren analisisen abiapuntua da gure portaera indibidual eta kolektiboetan erakundeek duten garrantzia eta, lurralde batean eratzten diren gizarte dinamikekin lotura estua dutenez, gizarte eraldaketako prozesuetan duten zeregina azpimarratzea. Adierazgarria da, ildo horretatik, ekonomia instituzionalistak erabiltzen duen **instituzio** kontzeptua, instituziotzat hartzen baitu pertsonak elkarre-raginerako dituzten azturak, ohiturak, arauak eta hizkuntza, arau horiek guztiak -hizkuntza barne- instituzioak diren heinean, bere horretan (Hodgson 2007).

Erakundeen ikuspegi horrek era berean azpimarratzen du **lurraldeen espezifikotasuna**, eta haien ibilbide historikoena, giza talde bakoitzaren bilakaera nahiz inguruko herriekin dituen elkarre-raginak aztertzeke garaian, barne hartuta beren izaera pertsonal eta kolektiboarekin bat bizitzeko inplementatzen ari diren edo gauzatu nahi dituzten proposamenak.

Eskola instituzionalista ez da pentsamolde monolitiko bat, ez baitago gorputz teoriko bakar eta bateratu bat<sup>9</sup>; baina, oro har, esaten du analisi ekonomikoaren abiapuntua **gizarteen prozesuen, garapenen eta ikaskuntzen teoria** bat dela, eta analisirako funtsezko elementuak direla gizarte horien instituzioak eta instituzio horiek ahalbidetzen dituzten botere eta banaketa erlazioak.

Eskola instituzionalista zaharra XIX. mendearen amaieran sortu zen Estatu Batuetan. Garai hartan, aldaketa handiak gertatzen ari ziren Ipar Amerikako egitura sozioekonomiko eta zientifikoetan<sup>10</sup>; aldaketa horien artean, bereziki azpimarratzekoak dira Ipar Amerikako nekazaritzan gertatutakoak, merkaturatze intentsiboaren bidez, eta enpresa handiak eta langile sindikatuak indartzea, zeinak haren industrializaziorako funtsezko elementuak izan baitziren (Mayhew 1999). Eskola honen sustatzaileen artean, Thorstein Veblen (1857-1929) eta John R. Commons (1862-1945) dira egile aipagarrienak.

<sup>9</sup> Hodgson, 1988, Jennings, 1993.

<sup>10</sup> II. Mundu Gerraz geroztik, Mendebaldeko intelektual askok eta Bretton Woodsen (Munduko Bankua eta Nazioarteko Diru funtsa) sortutako nazioarteko organismoek sustatutako garapen ereduen erreferente bihurtu dira.

Eskola instituzionalistaren eta pentsamendu feministen arteko loturak hasieratik gelditu ziren agerian, Veblenek kezka handia izan baitzuen emakumeen gizarte egoerari buruz; hainbeste, non haren kideek “feminista aitzindari” izendatu baitzuten. Kezka horretan oinarritu zuen gerora negozioren zibilizazioari egin zion kritika sozial eta ekonomikoa<sup>11</sup>. Haren idatzietan, hasierakoetan bereziki, modu esplizituan aipatu zituen emakumeak, eta, hortik abiatuta, gerora *veblendar dikotomia* izenez ezagutu zena ezarri zuen. Haren iritzian, bi taldetan bana daitezke gizartean egiten diren jarduerak. Alde batetik, esplotazio pertsonal maskulinoa, zeinaren helburua baita jabetza, eskla-boak eta zerbitzariak bereganatzea, eta, bestetik, industria femeninoa, zeinaren xede baita objektu baliagarriak egitea, haurrak eta gaixoak zaintzea, arteak eta artisautza. Veblenek bereizi zuen gizonen enplegua diru-enplegua zela eta emakumeen enplegua, berriz, enplegu industrialak. Hala, bada, hasieratik bertatik jabetu zen aztergai hartu zituen gizarteetan sexuaren arabera banatzen zela lana, argi eta garbi, eta orobat ohartu zen gizarte erreproduktzioari funtsezko ekarpenak egiten zizkiotela emakumeek, bere garaiko eskola marxialistak zioenaz oso bestela.

Ekonomia definitzeko orduan, kontzeptu zabal eta soziala<sup>12</sup> erabili du eskola instituzionalista zaharrak, *gizartea hornitzeko gizarte organizazioa* dela baitiote. “Elikadura, etxebizitza, janzkera eta zaintza maila kulturalki egokiak bermatzeko garatzen den hornidura prozesua” (Mayhew, 1999). Gizarte baten jardura ekonomikoen bilakakeraren analisia egiteko, ezinbestean ezagutu behar dira haren oinarritzko organizazioen (etxea, erakunde komunitarioak eta enpresa erakundeak, eta administrazio publikoak, nagusiki) ezaugarriak, horien arteko erlazioak eta artikulazioak.

Bat gatoz Veblenen proposamenarekin, esaten baitu instituzioak direla gizarte jakin batean “gizakiek oro har partekatutako pentsamendu arrunteko ohitura errepikatua”, denboran zehar eboluzionatzen doazenak. Beste era batera esanda, **instituzioak** egoera eta esperientzia berrietarako egokitzapen ez-teleologiko modura bilakatzen diren **arau kultural partekatuak** dira. Hala, kultura gizarte errealtateen analisisien eta proposamenen ardatz bihurtzen da, “pentsamendua eta giza ekintza uztartzen dituen interpretazio sinbolikoko sistema” den heinean<sup>13</sup>. Ildo horretatik, gizarte bateko portaera pautak (instituzioenak) kulturalki espezifikoak dira eta partekatu egiten ditu komunitateak, zeinetan historikoki garatu diren eta etengabe eboluzionatzen baitute pautak horiek. Hori dela eta, gizarte bat nola bilakatzen den eta nora doan jakin nahi badugu, jakin beharko dugu zer **balio** partekatzen dituen, baita denboran zehar balio horiek zer ibilbide egin duten ere. Analisi horien konplexutasuna dela eta, beste gizarte-zientzia batzuen ezagutzak baliatu behar dira horietan, bereziki antropologia, historia eta psikologiarenak<sup>14</sup>.

<sup>11</sup> Dugger, 1994:3.

<sup>12</sup> Julie Nelson, Nancy Folbre eta Marilyn Powerren moduko ekonomista feministek ere gizarte-horniduraren kontzeptu hori hartu izan dute abiapuntu.

<sup>13</sup> Jennings, 1993:113.

<sup>14</sup> Diziiplina aniztasuna da eskola instituzionalistaren eta ekonomia feministaren beste ezaugarri komun bat.

Eskola honek gizarte bilakaerari dagokionez nabarmentzen duen funtsezko faktoreen artean **ezagutzak bereganatzeko prozesuak**<sup>15</sup> daude, eta bat gatoz ideia horrekin. Hala, Veblenek, esaterako, hasieratik adierazi zuen AEBko goi mailako ikasketetan emakumeak sartzea bere garaian “planteamendu pragmatiko, moderno eta industrialak” bultzatutako jarrera-aldaketen adierazle izan zela. Hala ere, orobat bildu zuen aldaketa horren kontra unibertsitateen baitan zegoen sentimendua, eta honela definitzen du: “klase duintasunaren zentzua, hau da, goi eta behe mailetakoko duintasun intelektualaren arteko bereizketaren araberrako sexuen bereizketa ohorezkoaren, estatusaren zentzua, oraindik ere indar handia duena ikaskuntzaren aristokraziaren korporazio horietan” (1899). Bere garaian, klase sozial maskulino altu horrek sentitzen zuen emakumeek etxeko zerbitzua hobeto egitera mugatu behar zutela beren ikaskuntza, “ezagutza ez-femeninotzat hartzen baitzen”. Hori transmititzen zen zuzenean eta zeharka unibertsitateetan irakasten ziren diziplinetan, eta XX. mendera eta, diziplina batzuetan, gaur egunera arte iraun du jarduera diskriminatzaile horrek.

Atal honetan, ekonomia feministarekiko beste interpretazio komun aipagarri bat da **zientzia** eraikitzeke moduari buruzkoa, zientzia **eraikuntza sozial** gisa hartuta. Oro har, onartuta dago “**zientzia** sozialki eraiki dela, maskulinitatearen irudi jakin bati egokitzeko moduan” (Nelson 1996). Baieztapen horretatik abiatuta, gogoeta egin beharra dago emakumeak eta gizonak ezagutzara eta zientziara iristeko moduz, eta halaxe egin du, sakon, Hardingek (1991). Maskulinitasunaren ustezko gailentasunaren eta femininitasunaren ustezko gutxiagotasunaren arteko hierarkiak sendotzen dituzten ohiturak, klase altuek defendatzen dituzten balioetan sakon sustraituak, bat datoz ekonomia feministak erabiltzen duen generoaren esanahiarekin, zeina aurrez deskribatu baitugu.

Aldaketa instituzioen -hau da, pentsamendu eta ekintzako arau sozialen- berezko ezaugarria den arren, erresistentzia handiak topatu ohi ditu; izan ere, gizarte batean pentsamendu aztura sorta bat finkatuta dagoela -aztura hierarkikoak eta baztertzailak badira ere-, egonkortu egiten dira eta iraun egiten dute denboran. Iraunkortasun hori azaltzeko, esan ohi da **bizitzaren konplexutasuna kudeatzea** lortzen dutela horrela. “Azturak, errutinak eta ohiturak (pertsonek) erabakiak hartzeko garaian erabiltzen dituzten arauak dira. Jendeak arau horiei jarraitzeko joera du, jende guztiak gauza bera egiten duelako eta bizitzaren ziurgabetasunari eta konplexutasunari aurre egiteko modu simple bat eskaintzen dutelako” (Hodgson 1989). Hala, arau instituzionalek egonkortasuna eskaintzen dute, ziurgabetasuneko mundu batean. Eta, beraz, “instituzioek eta errutinek ez dihardute zurruntasun eta muga modura; aitzitik, aukera ematen dute erabakiak hartzeko eta ekiteko, beste pertsona batzuen ekintza aurreikusgarriari buruzko informazio fidagarri samarra ematen duten heinean”. Hala, “mundu izugarri konplexu batean, eta, ziurgabetasunak ziurgabetasun, posibleak dira portaera erregularrak eta aurreikusgarriak” (Hodgson 1989).

Jendearen portaera aurreikusgarria izateak, ordea, ez du esan nahi finkoa eta aldaezina denik. Hala, erakundeak aldatu egiten dira denboran zehar, sozialki eraikita daudelako,

<sup>15</sup> Giza garapenaren ikuspegiarako ere, ezagutzak bereganatu ahal izatea da pertsonentzako oinarrizko hiru auke-retako bat.

eta aldaketa horietan gatazkak gertatzen dira, ezinbestean, botere erlazioak azaleratzen baitira. Veblenen hitzetan: “gaur egungo egoerak etorkizuneko instituzioei forma ematen die, hautaketa eta hertsapen prozesu baten bidez, pertsonak gauzez duten ohiko ikuspegiari eragiten baitio eta, horrela, eraldatu edo sendotu egiten baitu iraganetik oinordekotzan jasotako ikuspegi bat edo adimen jarrera bat” (Veblen 1899). Bilakaera hori ez da, beraz, mugimendu lineal bat, saihestezinak ohi dira erreformak, eta, hala, arrazoizkoa da “haien eraginpeko taldeen partaidetza zabala” (Mayhew 1999).

Instituzioek eragileen helburuak eta portaera moldatu edo sendotu ditzakete, garrantziko funtzio kognitiboa betetzen baitute. Eragin hori norabide bikoitzekoa da, gainera, erakundeak eta organismoak gizartean txertatuak eta gizarteak eraldatuak baitira, aldi berean. Prozesu horretan, funtsezkoak dira instituzioen egiturak ere.

#### 10. irudia. Hastapeneko instituzionalismoaren oinarrizko ideia batzuk

- Pertsonak elkarrenginako erabiltzen dituzten ohiturak, arauak, azturak eta hizkuntza dira instituzioak.
- Instituzioak oso adierazgarriak dira gure banakako portaerak nahiz portaera kolektiboak ulertzeko, baita gizarte eraldaketako prozesuak ulertzeko ere.
- Veblenek kezka handia izan zuen emakumeen egoera sozialarekiko, eta diru-enplegu modura definitu zuen gizonen enplegua, eta enplegu industrial modura, emakumeena.
- Gizarte baten instituzioak/portaera arauak kulturalki espezifikoak dira, eta horiek historikoki garatu diren komunitateak partekatutakoak.
- Aldaketa instituzioen berezko ezaugarria da, baina erresistentzia handiak aurkitzen ditu, instituzioek, finkatuta daudelarik, lagundu egiten baitute bizitzaren konplexutasuna kudeatzen.

### Instituzionalismo feministaren gaur egungo joerak eta TGGren ikuspegiarekiko puntu komunak

Amerikar instituzionalismoan, oinarrizko kontzeptu ugari daude emakumeen zapalkuntzaren sustraiak hobeto ulertzeko lagungarriak, bai Iparraldeko bai Hegoaldeko gizarteak kontuan hartuta; izan ere, analisi proposamen oso zabalak egiten ditu instituzionalismo horrek, testuinguruaren arabera kokatzekoak eta, gizarte eboluzio modu posible bakar bat eman ordez, instituzioen eta sustatzen diren aldaketa kulturalen arteko elkarrenginean oinarritutakoak.

Veblenek emakumeen estatusari buruz erakutsitako interesari entzungor egin zioten eskola instituzionalistaren jarraitzaile askok, XX. mendeko laurogeita hamarrekoko hamarkadara arte; izen ere, orduantxe berreskuratu zen genero harremanak eta feminismoa eskola haren analisi ekonomikoetan txertatzearen garrantziari buruzko kontzientzia. Erlazio horri buruzko kontzientzia gehien duten joeretako bat **instituzionalismo erradikala** da, zeinak proposamen normatiboak egiten baititu, gizarteetan **partaidetzan eta demokrazian oinarrituriko eraldaketa instituzionaleko** prozesuak gauzatzea aldarrikatuz (Dugger eta Waller 1992) gaur egungo arazo sozioekonomikoak konpontzeko. Era

berean, Peterson eta Brown (1994) saiatu ziren “erakusten ekonomia instituzionalak ekonomia feministago baterako oinarria eman dezakeela”. Ildo horretatik, instituzionalismo erradikalak azpimarratzen du **partaidetza politikoa** biziki garrantzizkoa dela gizartearen parte handi baten beharrei eta lehentasunei erantzuteko prozesuetan, mugatu ez daitezen beren ahotsa ozen entzunarazteko eta, are, gizartearen gehiengoaren gustuetan eta nahietan eragiteko bitarteko guztiak eskura dituen elitera.

Era berean, **partaidetza dinamikak** beharrezko jotzen dira administrazio publikoen ekonomia politiketan genero ikuspegia txertatzeko prozesuetan, baita arlo pribatuko gobernantza prozesuetan ere. Ekonomia feministak ere ikusten du behar hori, bide horretatik berreskuratuko baitute emakumeek beren interes eta lehentasunekin bat etorriko diren politikak taxutzeko ahalmena. Prozesu horiek konplexuak dira, noski, eta erresistentzia eta zailtasun ugari izaten dituzte; baina aurre egin behar zaio horri guztiari, baldin eta gizarte berdinago batera iritsi nahi bada, talde pobretuenek ere -eta hor sartzen dira emakume asko- bide horretan parte hartuta.

Ildo horretatik, komeni da Jenningsen proposamena (1993) berreskuratzea, zeinaren arabera “instituzionalismo feministaren ikuspegitik, ‘ekonomizismoaren’ konponbidea baita **etxearen, merkatuaren eta politikaren berruztartze kulturala**, instituzio eta gizarte ingurune guztietan aitortzeko giza jarduera gehienen alderdi erreproduktibo, produktibo eta politikoak”. Hortaz, jardueraren hiru arlo klasiko horiek elkarreraginan nola diharduten aztertzean, azalera atera behar dira hiruren arteko loturak, modu kontzientean hartzeko emakumeek, oro har, eta, bereziki, manupeko emakumeek<sup>16</sup> dituzten arazo sozioekonomikoei konponbidea jartzeko erabakiak, arreta berezia eman ez baliabide gutxien dituzten emakumei, **aberastasunaren banaketa** ere gaur egungo arazo zentraletako bat baita.

**Giza garapenaren ikuspegia** ere bat dator horrekin, funtsezkoa irizten baitio gizarte bateko gizonen eta emakumeen etorkizunera begirako proiektu eta proposamenen diseinuan parte hartzeari, haiek baitira prozesu horien ardatzak eta funtsezko alderdi baten gabezia nabarmen izango baitute haiek parte hartu ezean.

---

<sup>16</sup> Antonio Gramsciri jarraituz, manupeko hitzak esan nahi du estatuaren (haren kasuan, Italia faxista) autoritate politikoa eta intelektualaren mendeko pertsona (edo mendeko klasea). Kontzeptu hori bere egin eta zabaltzeko egin zuten postkolonialista feministek, eta beren errealitateari aplikatu zioten.





## 2. Ekonomia Feminista eta Tokiko Giza Garapena: elkarguneak






### 2.1. Emakumeen eta gizonen arteko erlazioa, garapenari buruzko pentsamenduan

Ekonomia feministak analisi ekonomikoen partzialtasuna kritikatu du, baina partzialtasun hori bera lepora dakieke “aurrerabidea” eta “garapena” kontzeptuei, mendebaldeko munduan azken mendeetan gauzatutako kapital metaketa izan baita eredu hainbat hamarkadaz. Portaera-arau hegemoniko horrek beste proposamen alternatibo batzuk baztertu eta gutxietsi ditu, Mendebaldekoak ez diren herri autoktonoenak nahiz mendeko edo manupeko taldeenak, zeinetan sartzen baitira Mendebaldeko teorialariek “marjinalizat” hartutako taldeetako emakumeak.

Mendebaldeak eta nazioarteko garapen agentziek egindako diskurtsoan, garapenari buruzko eztabaidan begi-bistan gelditzen da interesgunea aldatu egin dela azken hamarkadetan. Laburbilduz, garapena nola lortu behar den eztabaidatu ordez, garapenak zer eduki izan behar duen eztabaidatzen da orain. Hala, hainbat hamarkadatan, garapena hazkunde ekonomikoarekin hain estu lotuta zegoela jo zen, non bi kontzeptuak sinonimotzat hartu ohi baitziren sarritan, eta, hortik abiatuta, nahi zen hazkunde maila lortzeko aukera zer eredu emango zuen eztabaidatzen zen, ea eredu kapitalista edo sozialista behar zen, baina kasu batean nahiz bestean industrializazioa harturik bidetzat.

Garapenaren ekonomia deritzona abian jarri zenean, ez zen kolokan jartzen modernizazioarekin eta hazkunde ekonomikoarekin identifikatutako garapenaren kontzeptua. Proposamen modernizatzaileak hasieratik adierazi zuen gizonen eta emakumeen prozesu horretan jokatu behar zuten egitekoaren ikuspegi esplizitua edo inplizitua. Gizon modernoak teoria ekonomiko neoklasikoak aldarrikatzen zuen gizon “ekonomikoaren” baliokide ziren, kasu bietan portaera arrazionala baitzen ezaugarri nagusia, betiere, autonomiak, interes propioak, berekoikeriak, dinamismoak, berrikuntza-gaitasunak, lehiakortasunak eta arriskuak hartzeko gaitasunak gidatua. Gizon horientzat, hazkunde ekonomikoak eta modernizazioak lan baldintza hobeak, soldata hobeak, hezkuntza eta ongizatea ekarriko zituen. Emakumeei dagokienez, hasieratik jo zen modernizaziorako aldaketa guztiak onuragarri izango zituztela bai lan merkatuan sartzen ziren emakumeek, baita etxeko lanak eta zaintza-lanak soilik egiten zituztenek ere.

1970eko hamarkadaren hasieran, ordea, Ester Boserup Emakumeak Garapenean (EG) ikasketen aitzindari eta erreferente klasikoak nabarmendu zuen garapen politikek baztertu egiten zituztela emakumeak, eta ondorioztatu zuen garapen estrategiak gizonentzat zirela bereziki onuragarriak. 70eko hamarkadaren bigarren erdian eta 80ko hamarkadan, EGren ikuspegiari egindako kritiketatik abiatuta, Generoa eta Garapena (GEG) ikuspegia lantzen hasi ziren Nazio Batuak.



GEG ikuspegiaren arabera, garapena indar politikoaren eta sozioekonomikoaren eraginpeko prozesu konplexua da, zeinetan adierazten baitira sexuen arteko erlazioak bai lanaren eta bai arlo politiko, ekonomiko eta kulturalera sexukako banaketan. Hala, testuinguru askotan, genero erlazioak klase eta arraza erlazioekin gurutzatzen dira, eta emakumeen bazterketa esperientziak aztertzen dira, emakumeei zeharka eragiten dieten politiketan gizonen baliabideen, aktiboaren eta erabakien gain dituzten botere eta kontrol erlazioekin lotuta. Ikuspegi hori Nazio Batuetan eragin ahalmena zuten emakume feministek eta mugimendu feministek bultzatu zuten. Nolanahi ere, gerora, ekintzaile haiek batzuek salatu izan dute Nazio Batuen baitako organizazio batzuek desitxuratu egin dutela kontzeptua, eta makro-instituzioak erabiltzen duen genero erretorikaren parte bihurtu dela.

## 2.2. Gaitasunen ikuspegia, genero berdintasunetik

Hainbat eraldaketa eta gertaera historikoren haritik -hala nola, 90eko hamarkadaren hasieran Sobiet Batasuna gainbehera jausi izana-, sistema kapitalista izan da eredu hegemoniko bakarra bi hamarkadaz. Hala ere, “buztinezko oinak dituen erraldoia” da, aldi berean egiaztatu baita hazkunde ekonomikoak ez dakarrela garapena zuzenean, baizik eta berdintasunik ez eta gorabehera gero eta handiagoak. Horrek gero eta kostu sozial eta ekologiko latzagoak eragiten ditu. Hala, eztabaidaren muina aldatu egin da, eta garapenaren kontzeptuaren beraren edukia da orain aztergaia<sup>17</sup>: hazkunde ekonomikoa, bere horretan, edo giza garapenaren eta bizi-kalitatearen alderdi zabalago bat. Hala, proposamen berri bat eraikiz joan da, pertsonak garapenaren xede modura harturik, ez bitarteko huts modura, eta pertsonen baliozko jotzen duten bizitza izateko aukerak zabaltzen dituen prozesu gisa harturik garapena. Kontzeptu hori, “giza gara-

<sup>17</sup> Eta kolokan jarri da garapenaren kontzeptua bera, Hegoaldeko post-garapen edo Iparraldeko murrizketa proposamenekin.

pena” deitutakoa, asko zabaldu da azken urteetan, Mahbub ul Haq, Amartya Sen eta Martha Nussbaum egileek, nagusiki, formulatu zutenetik.

Giza garapenaren ikuspegiari gaitasunen ikuspegia ere esaten zaio, eta bizi-kalitatearen ebaluaziorako eta oinarrizko gizarte justiziaren teorizaziorako hurbilketa modura uler daiteke. “Zer egiteko eta izateko gai da pertsona?” galderari erantzuten diete gaitasun-ek. Beste era batera esanda, Senek “funtsezko askatasunak” zeritzenak dira gaitasunak; hautatzeko eta jarduteko (Nussbaum 2012) aukera (elkarlotu) sorta bat, lotura estua duena eskubideen ikuspegiarekin, zeinak aditzera ematen baitu pertsonak nagusiki zer esparrutan duten beren bizitzaren gaineko erabakiak hartzeko eskubidea.

12. irudia. Eskubideen ikuspegia eta Ekonomia, Gizarte, Kultura eta Ingurumen Eskubideak (EGKIE)	
Eskubideen ikuspegia	EGKIEak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sektore baztertuei boterea emateko lehen urrats gisa hartzen du sektore horiek Estatua behartzen duten eskubide batzuen titularrak direla aitortzea.</li> <li>• Abiapuntua ez da pertsona batzuek beharrak dituztela eta asistentzia jasotzeko premia dutela, baizik eta subjektuek prestazio eta jokabide jakin batzuk eskatzeko eskubidea dutela.</li> <li>• Ekonomia, gizarte, kultura eta ingurumen eskubideak nazioartean aitortuta daude, Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Itunean (EGKENI).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna.</li> <li>• Lana eta gizarte segurantzza izateko eskubidea.</li> <li>• Familia-babeserako eskubidea.</li> <li>• Pertsonak eta haren familiak bizi maila egokia izateko eskubidea, barne harturik elikadura, arropa, etxebizitza eta bere baldintzen etengabeko hobekuntza.</li> <li>• Osasun fisiko eta mentalerako eskubidea.</li> <li>• Hezkuntza eskubidea.</li> <li>• Kultur bizitzan parte hartzeko eskubidea, aurrerabide zientifikoaren onurez gozatzeko eskubidea.</li> <li>• Ingurumen eskubideak.</li> </ul>

Hain zuzen ere, Nussbaumek aipatutako gaitasun nagusi batzuek (ikus 13. irudia) lotura estua dute nazioarteko komunitateak aitortutako giza eskubideen edukiarekin (ikus 12. irudia). Ildo horretatik, gaitasunen hizkuntzak hainbat eratara osatu eta zehaztu lezake giza eskubideen diskurtsoa. Kasu batzuetan, argiak dira bi ikuspegi-artearen aldeak. Adibidez, politikan parte hartzeko gaitasuna botoa emateko eskubidearen gainetik jartzeak agerian uzten du botoa emateko eskubidea ez dela aski, baldin konstituzioetan jasota edo txertatuta egotera mugatua bada. Gaitasunak ardatz hartzearen beste onura adierazgarri bat da lausotu egiten dela arlo publikoaren eta arlo pribatuaren arteko bereizketa, eta hori aurrerapauso handia da, zalantzarik gabe, genero ikuspegitik. Izan ere, tradizio liberalak halako eragina izan du eskubideen hizkuntzan, “instituzionalizatu” egin baita bizitza pribatuaren partetzat hartzen dena ez arautzea. Azkenik, gaitasunen ikuspegiak eskubideen ikuspegiaren gainean duen beste abantaila bat da giza eskubideen diskurtsoari leporatzen zaiola Europako Ilustrazioarekiko lotura eta “Mendebaldearen” ikuspegia lehenestea, eta, aldiz, gaitasunen ikuspegia aise atxiki dakiokela munduko edozein tokiri, pertsonak kultura guztietan

eta nonahi galdetzen baitiote beren buruari zer izateko eta egiteko gai diren. Hala ere, eskubideetan oinarrituriko ikuspegiak badu abantaila bat: gaitasunen ikuspegia baino ulerterrazagoa eta sinpleagoa da.

Aukera gehiago izateko, funtsezkoa da giza gaitasunak garatzea, hau da, nor bere bizitza antolatzekeo gai izatea, kontuan hartuta bere ustez zer den sakonena eta garrantzizkoena (Nussbaum 2002). Oro har, eta labor azalduta, hauek dira giza garapenerako gaitasun funtsezkoenak: bizitza luze eta osasungarria izatea, kalitatezko hezkuntza izatea, bizi-maila duina izateko baliabideak eskura izatea eta komunitatearen bizitzan parte hartu ahal izatea. Gaitasun horiek eduki ezean, nabarmen mugatzen da aukera sorta, eta eskuraezinak izango dira bizitzako aukera asko eta asko. Baina giza garapena askoz ere urrunago doa, eta pertsonen bizi-kalitatean funtsezko aukera-esparruak dira, adibidez, giza eskubideen bermea, giza segurtasuna, bizitzaren eta planetaren zaintza, guztiak ere behar-beharrezkoak pertsona sortzailea eta produktiboa izateko, nor bere buruarekiko errespetua izateko, norberaren barne potentziala eta komunitate bateko kide izatearen sentipena garatzeko. Azken batean, giza garapena jendearen, jendeari zuzendutako eta jendeak bultzatutako garapena da.

Pertsonen beren patua lantzeko trebetasuna izateari buruzko kezka, Amartya Senek “agentzia” deritzona, funtsezkoa da gaitasunen ikuspegian, eta askatasunarekin estu lotuta dago. Senen agentzia-kontzeptu horrek zerikusia du Hegoaldeko mugimendu feministek sustatzen duten **jabekuntza** estrategiarekin, eta, esparru horretan, DAWN plataformak (Development Alternatives with Women for a New Era) egindako planteamendua nabarmentzen da, besteak beste. Jabekuntza strategiaren xedea da mende-kotasun egiturak eraldatzea, aldaketa erradikalak eginez legetan, jabetza eskubideetan eta gailentasun maskulinoa sendotzen eta betikotzen duten instituzioetan. Ikuspegi horretatik, boterea eskuratzeko prozesu bat da jabekuntza, boteretzat ulertuta jabekuntzarik ez duten eta, beraz, beren bizitzan gainean kontrol gutxi duten pertsonen nor izateko eta adierazteko gaitasuna edukitzea.

Genero analisia funtsezkoa da gaitasunen ikuspegian, bi arrazoi direla eta (Nussbaum 2012). Lehenik eta behin, arazo horiek garrantzi handia dutelako, berez, justiziaren arloan desoreka handia baita emakumeek arlo askotan eta mundu osoan jasaten duten berdintasun eza. Garapenari loturiko arazo bat da, horrez gainera, emakumeei aukerak ukatzeak aurrerapena eragozten baitu herrialde askotan. Bigarrenik, arazo horiek “su-proba teoriko” bat direlako, eta oso ongi ilustratzen dutelako garapenaren arloko ikuspegi konbentzionalak desegokiak direla eta gaitasunen ikuspegiak askoz ere hobeto funtzionatzen duela.

Garrantzizkoa da, beraz, jakitea gaur egun zein diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egitea eragozten duten emakumeen berdintasun ezeko dimentsio gakoak. Dimentsio horiek identifikatzeko, kontuan hartu dugu Martha Nussbaumen gaitasunen zerrenda, baita gerora Ingrid Robeynsek egindako egokitzapena ere, Nussbaumen gaitasunak Iparraldeko herrialdeetako errealitateari egokitzeko xedea zuena, eta hurrengo irudietan laburbilduta adierazi ditugu bata eta bestea. Bi sailkapenak saiatzen dira bizitza duinaren osagai giltzarriak zein diren

adierazten. Gaitasun guztiek izanik nagusitasuna eta elkarri lotuta egonik, Nussbaumen zerrendan bereziki azpimarratzekoa iruditzen zaigu gorputzaren eta adimenaren eskubideei ematen zaien garrantzia (osasuna, integritate fisikoa, zentzumenak, jolasa...), baita beste pertsona edo izaki batzuekiko erlazioari ematen zaiona ere (zentzuak, emozioak, afiliazioa, beste espezie batzuk, norberaren ingurunearen gaineko kontrola). Robeynsek, berriz, gehiago azpimarratzen du lanerako sarbidea, lan ordaindurakoa ez ezik, ordaindu gabeko lanerako sarbidea, eta zaintza ere hor kokatzen duenez, agerian uzten du zaintzaren alderdi ezkutuen, ordaindu gabekoa, alegia; era berean, denboraren erabilerari buruzko erabakiak hartzeko gaitasuna aipatzen du, eta bereizita ematen ditu Nussbaumek kategoria bakarrean bildutako zenbait gaitasun.

### 13. irudia. Martha Nussbaumen gaitasun nagusiak, eta Ingrid Robeynsenak

#### Martha Nussbaumen gaitasun nagusiak

1. **Bizitza:** iraupen normaleko giza bizitza bat bizitzeko gai izatea, amaierara arte, garaia baino lehenago edo bizitza bizitzea merezi ez duen zerbait bihurtu aurretik hil gabe.
2. **Gorputz osasuna:** gai izatea osasun ona edukitzeko, ugalketa-osasun ona barne; behar bezala elikatuta egoteko eta etxebizitza egokia izateko gaitasuna.
3. **Integritate fisikoa:** gai izatea toki batetik bestera askatasunez eta segurtasunez mugitzeko.
4. **Zentzumenak, irudimena eta pentsamendua:** gai izatea zentzumenak erabiltzeko, imajinatzeko eta arrazoitzeko, eta modu benetan gizatiarrean egin ahal izatea hori guztia, hau da, hezkuntza egokiaren bidez informazioa eskuratuta eta landuta.
5. **Emozioak:** gai izatea norberaz kanpoko gauza eta pertsonekin lotura afektiboak izateko.
6. **Arrazoimen praktikoa:** gai izatea ongiaren kontzeptu bat eratzeko eta bizitzaren plangintzari buruzko gogoeta kritikoa abiatzeko.
7. **Afliazioa:** gai izatea beste pertsona batzuekin eta beste batzuei emanik bizitzeko, eta gai izatea beste edonork adinako balioa duen izaki duin bati dagokion trataera jasotzeko.
8. **Beste espezie batzuk:** gai izatea animaliekin, landareekin eta naturaren munduarekin interesatuta eta haiekin erlazioan bizitzeko.
9. **Jolasa:** gai izatea jolasteko eta aisiako jardueraz gozatzeko.
10. **Norberaren ingurunearekiko kontrola (ingurune politiko nahiz materialarekikoa):** gai izatea erabaki politikoetan eraginkortasunez parte hartzeko, gai izatea jabetzen jabe izateko.

#### Ingrid Robeynsen gaitasunak

- |  |  |
|--|--|
| 1. Bizitza eta osasun fisikoa.                     | 9. Etxebizitza eta ingurumena.                                   |
| 2. Adimen osasuna eta ongizatea.                   | 10. Mugikortasuna.   |
| 3. Integritatea eta gorputz segurtasuna.           | 11. Aisiako jarduerak.   |
| 4. Gizarte harremanak.                             | 12. Denboraren erabileraren gaineko erabakiak hartzeko eskumena. |
| 5. Jabekuntza politikoa.                           | 13. Errespetua (norberaren burua errespetatzea, duintasunez).    |
| 6. Hezkuntza eta ezagutza.                         | 14. Erlijioa.  |
| 7. Ordaindu gabeko etxeko lanak eta zaintza lanak. |  |
| 8. Lan ordaindua eta bestelako proiektu batzuk.    |  |

Zalantzarik gabe, oinarri-oinarrizko gaitasunak dira hezkuntza, sexu eta ugalketa arloko osasuna, zaintza, autonomia ekonomikoa eta erabakietan parte hartzea, hori guztia, indarkeriarik gabeko testuinguru batean. NBE Emakumeak erakundearen lan arloak dira gaitasun horietako batzuk, honako beste arlo hauekin batera: Bakea eta segurtasuna, Plangintza eta aurrekontu nazionalak, eta Giza eskubideak. Gaitasun horiek ezin uler daitezke besteak gabe, eta begi-bistakoa da elkarri estu lotuta daudela.

- *Zaintza duinetarako sarbidea:* ekonomia feministaren ekarpen nagusienetakoa izan da agerian uztea pertsona orok zaintzak jasotzeko dugun premia, zaintza horiek bizi-kalitatean duten garrantzia, horien antolaketa eta merkatuko lanekin eta zerbitzu publikoekin duten erlazioa. Zaintza ematea nagusiki jarduera pribatua zela jo izan da historikoki, eta zaintza emateko erantzukizuna emakumeek izan dute, sistematikoki. Etxeko lanen eta zaintza-lanen banaketan ikusten den desberdintasun horrek beste hainbat desberdintasun sorrarazi ditu, nagusiki ekonomikoak. Auzi horri erantzun sozial, politiko eta kolektiboa ematea eta aurrera begira emakumeen kalterako ez izatea herrialde guztiek gainditzeke duten irakasgaia da, eta sozialki iraunkorra izango den eredu bat lortzeko ezinbestean konpondu beharreko zerbait ere. Zaintza duina jasotzeko gaitasunak lotura estua du gainerako gaitasunekin, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako gaitasun adierazgarrietakoa da.
- *Hezkuntzarako sarbidea:* pertsonen erabateko garapenarekin loturiko eskubidea izateaz gainera, eragin erabakigarria du emakumeen eta gizonen, familien eta taldeen bizi-kalitatean eta aukeretan. Egiaztatuta dago hezkuntzak zer-nolako onurak dakartzan honako hauei dagokienez: osasuna, diru-sarrerak, familia-egituraren baitako aldaketak (ugalkortasunarekin eta familiako kideek jarduera ekonomikoetan duten partaidetzarekin loturik, besteak beste), balio demokratikoen sustapena, bizikidetzaz zibilizatua eta pertsonen jarduera autonomo eta arduratsua. Hortaz, gainerako dimentsioetan aurrera egiteko tresna da hezkuntza, argi eta garbi.
- *Sexu eta ugalketa arloko osasunerako sarbidea:* funtsezko gaia da emakume guztien bizitzan, bereziki emakume gazteen bizitzan. Kairoko Populazioaren eta Garapenaren Nazioarteko Konbentzioan (PGNK), 1994an, finkatu zen sexu eta ugalketa eskubideak garrantzizko helburuak direla bere horretan, egonkortasun demografikorako oinarri-oinarrizko tresna izateaz gainera. Gaitasun honekin loturiko arazo larrienen artean, honako hiru hauek dira nabarmentzekoak, herrialde eta emakume pobretuenentzat, batik bat: amen heriotza, nerabeen haurdunaldiak eta haurdunaldia nahita etetea.
- Gaur egungo gizarteetan, *autonomia ekonomikoa* gako da pertsonen ongizate materiala eratuko duten ondasun eta zerbitzuetarako sarbidea lortzeko. Orain dela nahiko gutxira arte -denbora historikoaren terminoetan-, familia eredu nagusi hau zegoen indarrean gizarte askotan: errenta baten truke merkatuan lan egiten duen gizona eta etxeko lanez eta zaintzaz arduratzen den eta ekonomikoki “famiaburuaren” errentaren mendeko den emakumea. Herrialde gehienetan,



autonomia ekonomikoaren arloko aurrerapenak emakumeek lan arloan parte hartu izanaren eskutik etorri dira. Hala ere, autonomia ekonomikoa ez da diru-sarreraren autonomiara mugatutako kontzeptua, askoz ere zabalagoa baizik, bere baitan hartzen baititu beste alderdi asko, hala nola, zerbitzu publikoak edo krediturako eta gizarte prestazioetarako sarbidea.

- Feminismoak agerian utzi du *partaidetza* kontzeptua berraztertzeke premia eta ohikoez bestelako esparruei arreta ematearen garrantzia, adibidez, egunerokotasuneko hainbat esparruri, zeinak bazterrera utzi baitira partaidetzari buruzko ikerketetan, espazio politikotzat hartzen ez zirelako. Hala ere, ez da ahaztu behar horrek badituela arriskuak ere: “emakumearen tokia” tokiko elkarte eta espazioetan naturalizatzeko arriskua, hain zuzen ere. Lehentasuna eman behar zaio emakumeek erabaki politikoak eta ekonomikoak hartzen diren guneeetan parte har dezaten sustatzeari. Jakina, erabakiak hartzeari dagokionez kopurutan dagoen aldea murriztea ez da baldintza nahikoa -nahiz eta bete beharreko baldintza den, emakumeen interesen aniztasuna aintzat har dadin-, emakumeek parte hartze hutsak ez baitu bermatzen beren interesen aldeko apustu sendoa.
- *Indarkeriarik gabeko bizitza bat bizitzeko eskubidea*: emakumeen kontrako indarkeria gizonen eta emakumeen artean dauden berdintasun ezeko botere harremanen eta diskriminazioaren muturreko adierazpena da. Indarkeriak askotariko moldeak har ditzake (fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa, politikoa, judiziala, soziala...), eta emakumeen bizitzako gune ia guztietan erreproduzitzen dira indarkeria bera nahiz haren mehatxua: kalean, lantokian, eskolan, jaiguneetan eta aisia guneeetan, komunitatean eta etxeko espazio intimoan. Sakon errota dago kultura batzuetan, eta tolerantzia sozialak eta erakundeen konplizitateak ahalbidetzen dute hura erreproduzitzea. Emakumeen kontrako indarkeriak, hartzen duen esparru zabalagatik, duen izaeragatik eta moldeagatik (izaera eta ezaugarriak), murriztu egiten dizkie gainerako gaitasunak emakumeei, eta, hala, gizartearen giza garapenerako desabantaila korrosiboa da, gero azalduko dugunez.

#### 14. irudia. Gaitasunen ikuspegia eta Ekonomia Feminista

- Helburua: pertsonen gaur egungo eta etorkizuneko ongizatea.
  - Bizitzaren iraunkortasuna.
- Gizarte-bidegabekeria eta berdintasun ezekiko kezka.
  - Bereziki, diskriminazioen (sexuaren, klasearen, etniaren, sexu joeraren... arabera) diskriminazioen) eta bazterketaren ondorioei buruzkoa.
- Sektore publikoaren eta politika publikoen garrantzia.
  - Bizi-kalitatean eta berdintasunik ezen kontrako borrokan.
- Etxeen ikuspegi tradizionalaren kritika.
  - Etxea, gatazka espazio gisa eta erregulazio publikoaren xede gisa.

Azkenaldian ekarpen jakingarriak egin zaizkio gaitasunen ikuspegiari, hala nola Jonathan Wolf eta Avner De-Shalitenak, zeinak “gaitasunaren segurtasuna” kontzeptua

biltzen baitute. Ekarpen horien arabera, politika publikoek ez dute mugatu behar pertsonen gaitasuna ematera: haien eskura jarri behar dituzte gaitasunak, pertsonen etorkizuneari horiek gauzatzeko modua izan dezaten. Segurtasunaren ikuspegi horretatik abiatuta, zalantza sortzen da zenbateraino dagoen gaitasun bakoitza babestuta merkatuaren apeta eta balantzetatik edo interes politikoetatik. Era berean, segurtasuna bermatzeko antolaketa politiko, administratibo... egokienei buruzko gogoeta eragin du kontzeptu horrek (Nussbaum 2012).

Wolff eta De-Shalitek “funtzionamendu emankorra” eta “desabantaila korrosiboa” kontzeptuak ere landu dituzte. “**Funtzionamendu emankorra**” deritza beste gaitasun atxiki batzuk ahalbidetzen dituenari. Horren adibidea izan daiteke hezkuntza, hainbat testuingurutan, askotariko aukerak zabaltzen dituelako. “**Desabantaila korrosiboa**”, berriz, “funtzionamendu emankorraren” ifrentzua da; hau da, bizitzako beste esparru batzuetan ondorio bereziki zabalak dituzten gabeziak. Emakume askorentzat, desabantaila korrosiboa da, zalantzarik gabe, indarkeria. Balizko gaitasun/funtzionamendu emankorrek eta desabantaila korrosiboak ikertzea garrantzizkoa izan daiteke politika publikoek zein puntutan esku hartu behar duten antzemateko (Nussbaum 2012).

Gaitasunen ikuspegia eta ekonomia feminista puntu askotan datoz bat, biek baitute xede emakumeen eta gizonen gaur egungo eta etorkizuneko ongizatea, ekonomia feministak bizitzaren iraunkortasuna deritzona (ikus 14. irudia). Bi ikuspegiak elkargune horretan, nabarmentzekoa da, halaber, gizarte bidegabekeriaren eta berdintasun eza analisia, baita agerian uztea ere etxeak eta politika publikoek emakumeek eta gizonen herrietan bizi dituzten errealitateetan duten eginkizuna, eta berdintasun ezak gainditzeko izan lezaketena, duintzat hartzen den bizitza bizitzeko aukerak zabalduz.

Ildo horretatik, ekonomia feministak indar bereziz azpimarratzen du, arlo ez-merkantileko zaintzaren gaitasunaz haratago, gaitasun guztiak direla funtsezkoak pertsonen zaintzeko eta zaintza jasotzeko duten eskubidea errealitate bihurtzeko, zaintza ikuspegi zabaletik hartuta (ordaindua nahiz ordaindu gabea; zuzeneko nahiz instrumentala, etab.). Bi ikuspegiak dituzte ardatz emakumeak eta gizonak; eta horrek berarekin dakar ekonomia konbentzionalaren ikuspegi dikotomikoa baztertua eta pertsonen bizitzaren dimentsio aniztasuna onartzea. Eta ardatza pertsonak badira, ezinbestean izango dira ardatza haien **zaintzak** ere. Horrek esan nahi du, besteak beste, balioa ematea mundu osoan nagusiki emakumeek egiten dituzten, ezkutuan dauden eta aintzat hartzen ez diren zaintza-lanei. Interesgarria litzateke zaintza horien hein ekonomikoa zehaztu ahal izatea, zaintzak oro har hartuta, ongizatea adieraz baitezake horien per capita adierazleak. Horretarako, alde aurretik zehaztu beharko litzateke zaintzarako zer gastu/inbertsio/lan jotzen diren beharrezko; bestela, arriskua legoke jardura ordaindu (BPG) eta ez-ordaindu guztiak biltzeko.

Era berean, erakunde edo antolakundeen **gaitasun kolektibo**ei dagokienez, garrantzizkoa iruditzen zaigu esatea “instantzia kolektiboak”, edozer motatakoak direla ere, ez direla instantzia animatuak, ez dutela berezko bizitarik kide dituzten pertsonengandik at, pertsonen osatuta daudenez; eta, alderdi horretatik, garrantzizkoa da berraztertzea, lehenik, emakumeek eta gizonen erakundeetan zer eginkizun eta toki duten,

bereziki erabakiak hartzeari dagokionez. Bigarrenik, aldaketaren, eta, zehazki, garapen ereduaren aldaketaren aldeko apustuan, genero ikuspegia txertatu beharko litzateke beti, **zeharka**. Jakina, gogoeta are interesgarriagoa egin liteke TGGrako instantzia kolektibo eta antolakunde gakoak identifikatuko bagenu. Eta, gure ustez, gizarte mugimenduak direnez giltzarrietako bat, genero ikuspegitik aztertu beharko lirateke, eta ikusi eraldaketarako zer proposamen egiten dituzten mugimendu feministek eta antolamendu misto nahiz emakume antolamenduek. Gainera, zapalkuntza erlazioak gainditzera eta **ekonomia sozial eta solidarioko** jardunbideak garatzeko joera duten egitura ekonomikoak aztertzea lagungarria izango da errealitateak eta horien eraldaketa potentziala sakonago aztertzeko.

Era berean, ekonomista feministek **etxea** interes gatazkarik gabeko gunetzat eta abar agertzen duen analisi ekonomikoa kritikatu duten bezalaxe, gaitasunen ikuspegiak ere nabarmendu ditu familia justizia sozialaren eskumenetik kanpoko “eremu pribatu” bateko elementutzat jotzen duten gabeziak (kasu honetan, tradizio liberal klasikoarenak). Ez da ontzat ematen, beraz, erabat “pribatu” den plano bakar bat dagoenik giza bizitzan, lege erregulazio ororen eraginpetik at egoteari dagokionez, nahiz eta onartzen den giza bizitza libreek espazioak behar dituztela erabakiak hartzeko, adibidez, gurasoek seme-alabei buruzko erabakiak hartzeko (Nussbaum 2012).

Ekonomia feministak, dagoeneko esan dugunez, garrantzi handia ematen dio estereotipoek -tradizioan oinarriturikoak, sarritan- berdintasunik ezak iraunarazteko duten eginkizunari. Eta gaitasunen ikuspegiak ere **tradizioarekiko atxikimendu akritikoak** emakumeen berdintasunari dakartzkion eragozpenak aipatzen ditu.

Giza garapenaren ikuspegiak eta ekonomia feministak, azken batean, ekonomiaren ikuspegi soziala dute, gizarte berdintasunik ezekiko kezkari loturik, biak ere. Hain zuzen ere, garapenari buruzko azken txostenak dioenez, “Amartya Senek proposatutako gaitasunen ikuspegiaren oinarritzko galdera da berdintasun ezen artetik bidezkoak edo bidegabeak zein liratekeen”.

### 2.3. Gaitasunak ebaluatzeko adierazleen premia

Gaitasunen ikuspegia ongizatearen ebaluazio-ikuspegizat har badaiteke, komeni da adierazle egokiak finkatzea ongizate orokorra eta, zehazki, gaitasun nagusiak neurtzeko. Adierazleak egoera edo ezaugarri jakin bat adierazten duten neurriak, zenbakiak, gertaerak, iritziak edo hautemateak dira, eta denboran zehar egoera edo ezaugarri horretan gertatutako aldaketak neurtzen dituzte. Adierazleek fenomeno jakin bat irudikatzen dute beti, eta errealitate bat islatu dezakete, osorik nahiz partzialki.

Sarkozy Txostenak, azken urteetan auzi estatistikoetarako -bereziki, ongizatea neurtzeko- ezinbesteko erreferentzia bihurtu denak, dio adierazle estatistikoak garrantzizkoak direla gizartearen aurrerabidea bermatzera bideratutako politikak lantzeko eta ebaluatzeko, baita merkatuen funtzionamendua ebaluatzeko eta horietan eragiteko ere. Neurtzen duen orok ondorioak ditu egiten den horretan; baina neurketak zuzenak ez

badira, okerrak izan litezke erabakiak (Stiglitz, Sen, Fitoussi 2008). Garrantzizkoa da adierazleak errealitate jakin baten ezaugarriak atzematuko egokiak izatea, baina, aldi berean, funtsezkoa da adierazleak adostea, nazioarteko konparaketak egin ahal izateko.

Estatistiken balioa zalantzan jarri gabe, ez da komeni, halaber, horiek sakralizatzea. Lehenik eta behin, errealiterako hurbilketa soilak direlako eta errealitatea estatistika hutsak baino askoz ere konplexuagoa eta dimentsio gehiagoz osatua delako. Bigarrenik, litekeena delako neurketa prozesua ez izatea beti perfektua; alde horretatik, neurketa tresnetan aurrerapenak egiten eta tresnak errealitate beti aldakorrera egokitzen jarraitu beharra dago. Hirugarrenik, estatistikak neutralak direla esan ohi den arren, munduari begiratzeko modu jakin bat adierazten dutelako: ez da halabeharra, adibidez, gai jakin batzuei buruz informazio ugari eta beste batzuei buruz, berriz, oso gutxi izatea; ekoizpen estatistikoa zuzentzen eta kontrolatzen duten lehenetasunen erakusgarri da. Hala, lan arloari buruzko estatistikak ugari dira, eta, aldiz, ez dira aski estatistika lantzen lanei buruz, gaur egungo gizarteetan enpleguari ematen zaion nagusitasunaren erakusgarri. Gainera, denboraren erabilerari buruzko estatistikarik ezak bide ematen du etxeko lanak eta zaintza-lanak azalera atera gabe jarraitzeko, nahiz eta zuzen-zuzeneko harremana duten, ez soilik pertsonen ongizatearekin, baita lan arloko estatistikekin eta, ondorioz, merkataritza-ekoizpenarekin ere.

Azkenik, estatistikak oro har per capita batez besteko modura adierazi ohi direnez, ezkutatu egiten dituzte gizarte klasea edo maila sozioekonomikoa, jatorri etnikoa, erlijioa, sexu joera edo adina iturburu dituzten askotariko diskriminazioek ezaugarrituriko mundu bateko berdintasun falta larriak. Gainera, badago faktore bat, sexua, kolektibo guztiak zeharkatzen eta ukitzen dituena; hala, generoko berdintasunik ezak, gizarte orotan gertatzen direnak, askotariko diskriminazio molde bihurtzen dira talde bereziki ahulei eragiten dietenean.

Teoriatik haratago jotzeko, Garapenerako Nazio Batuen Programak (GNBP) per capita errentaz bestelako garapen eta ongizate adierazle batzuk proposatu ditu. Adierazleak ongizatearen dimentsio aniztasuna atzeman dezaten, adierazle konposatuaren aldeko aukera egin du, eta adierazleak eraldatuz joan dira denboran zehar, 1990. urtean lehen aldiz argitaratu zirenez geroztik. Adierazle konposatuak (edo "indizeak") askotariko adierazleen kontzeptu baten adierazleen konbinazio haztatuaren emaitza islatzen duten "laburpen" zifrak dira, eta aldagai bati baino gehiagori erreferentzia egiten diote, ildo horretatik.


Esan dugunez, berdintasuna garrantzizkoa da ongizaterako, eta, ongizatearen adierazle konposatu orokorrenek berdintasunik ezak beren baitan biltzen ez dituztenez, berdintasunik ezak barne hartzen saiatzeko adierazle jakin batzuk diseinatu dira, pobrezian eta baliabideen banaketaren berdintasunik ezean oinarrituak, batik bat. Jakina, adierazle orokorrek ez dituzte barne hartzen generoko berdintasunik ezak, eta, genero berdintasuna ere bizi-kalitatearen adierazlea denez, azken urteotan aurrerapen jakingarriak egin dira generoko adierazleak lantzeko. Hurrengo irudian (15. irudia) adierazle konposatu esanguratsu eta ezagunenetako batzuk agertzen dira.

Jakina, adierazleak diseinatzeko, atzeman nahi den errealitatearen alderdi nagusiak hartu behar dira kontuan. Hala, ongizatearen adierazleek biltzen dituzten dimentsioak aztertuta, ongizatearen funtsezko alderdiei buruzko gakoak eman diezazkigukete. Hurrengo irudian laburtutako adierazleen dimentsioen irakurketatik ondorioztatzen dugu hiru dimentsio/gaitasun daudela ongizaterako funtsezkoak: hezkuntza, osasuna eta harreman ekonomikoak. Alderdi ekonomikoa diru-sarreraren edo/eta lan adierazleen bidez aztertzen da, nagusiki.

Genero adierazleek ere kontuan hartzen dituzte hiru esparru horiek, garrantzizkoak jotzen baitira gizonen eta emakumeen bizitzarako. Baina genero adierazleek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eza neurtzeko xedea dutenez, oro har, arreta gehiago ematen diete berdintasunik ezaren gakoei, hau da, berdintasunik eza argien eta indartsuen erakusten duten dimentsioei. Genero adierazleen azterketatik ondorioztatzen da genero berdintasun ezaren arazoari aurre egiteko jabeakuntzarekin eta partaidetzarekin loturiko alderdiak landu behar direla, nagusiki, alderdi ekonomikoekin eta hezkuntza alderdiekin batera (eta, neurri txikiagoan, osasunarekin batera).

15. irudia. Ongizatearen eta berdintasun ezaren adierazle konposatu nagusiak			
Adierazle orokorrak			
Adierazlea	Erakundea	Kopurua	Dimentsioak
Giza Garapenaren Indizea (GGI)	GNBP	4	- osasuna - hezkuntza - diru-sarrerak
GGI, berdintasun ezera egokitua (GGI-BE)	GNBP	4	- osasuna - hezkuntza - diru-sarrerak
DAPI Dimentsio Anitzeko Pobrezia Indizea	GNBP	10	- osasuna - hezkuntza - bizi-mailak
Bizitza hobeko baterako indizea	ELGA	24	- etxebizitza - diru-sarrerak - enplegua - komunitatea - hezkuntza - ingurumena - hiritarren konpromisoa - osasuna - gogobetetasuna - segurtasuna - bizitza-lana oreka
Genero adierazleak			
Adierazlea	Erakundea	Kopurua	Dimentsioak
Generoko Berdintasun Ezaren Indizea	GNBP	5	- ugalketa osasuna - jabekuntza - lan arloko partaidetza
Emakumeen Ekonomia Aukeren Indizea (EEAI)	Economist Intelligence Unit	26	- lan arloko politika eta praktika - kredituen eskuragarritasuna - hezkuntza eta prestakuntza - emakumeen estatus juridiko eta soziala - enpresa ingurune orokorra
Gizarte Erakundearen Genero Indizea (GEGI)	ELGA	12	- familia kodeak - integritate fisikoa - posizionamendu ekonomikoa - askatasun zibilak - jabetza eskubideak
Generoko Arrakala Orokorraren Indizea (GAOI)	Munduko Ekonomia Funtsa	14	- partaidetza ekonomikoa eta hezkuntza - osasuna eta biziraupena - jabekuntza politikoa
Genero Berdintasunaren Indizea (GBI)	Social Watch	10	- hezkuntza - partaidetza ekonomikoa - jabekuntza
EqualIX	Suediako Estatistika Institutua	13	- lan merkatua - hezkuntza - diru-sarrerak - bateratzea - partaidetza politika - demografia

Gaitasun/dimentsio zehatzak ebaluatzeko (hezkuntza, osasuna, diru sarrerak...) adierazle konposatuak erabil daitezke, baina ohikoagoak dira adierazle sinpleak. Adierazle sinpleak fenomeno jakin baten alderdi behagarriren bat aztertzeke erabiltzen diren oinarrizko datu laburpen edo datu sortak dira, aldagai bakarri dagozkionak. Kasu honetan, komeni da datuak sexuka bereizita ematea beti, generoko berdintasunik ezari buruzko informazioa emango baitigu horrek. Azkenaldian, gizonen eta emakumeen arteko datuen arteko aldea edo arrakala neurtu ohi da generoko berdintasun ezak neurtzeko. Horrela jokatu, emakumeen aldaketak soilik azpimarratzeko arriskua legoke, gizonen aldaketak, hain beharrezko direnak, ahazturik eta alde batera utzirik. Gainera, arrakala kontuan hartuta jarduteak esan nahi du berdintasunezko gizarte gisa ager litezkeela emakumeentzat nahi gizonentzat gabezia ugari eta aukera urriak dituzten gizarteak.



Aipamen berezia egin nahi diogu bizitza hobe baterako indizeari (Better Life Index), alde batetik, oso berria delako (2011n eman zen argitara lehen aldiz), eta ez oso ezaguna; eta, bestetik, lehen aipatu dugun ongizatearen neurketari buruzko Sarkozy Txostenaren ondorioa delako, neurri batean. Indize hori ELGAK landua da. 11 gai/dimentsio biltzen

ditu, funtsezko jotzen direnak ongizaterako, bizitza baldintza materialei (enplegua, diru-sarrerak, etxebizitza) eta bizi-kalitateari (komunitatea, hezkuntza, lanaren eta norberaren arteko oreka, ingurumena, herritar partaidetza, osasuna, bizitzarekiko gogobetetasuna eta segurtasuna) loturik. 24 adierazle ditu, horien artean adierazle kua-  
litatiboak edo pertsonen hautemateei lotuak. 36 herrialdeetarako kalkulatu da, eta adierazle guztietan generoko berdintasun ezei buruzko informazioa ematen du. Grafi-  
ko honetan laburbilduta daude ongizatearen indize konposatu berriaren dimentsio eta adierazleak <http://www.oecdbetterlifeindex.org/>.



### 3. Eztabaidarako gakoak





Garapenari buruz hitz egiteak ezinbestean esan nahi du ongizateaz eta bizi-kalitateaz hitz egitea, eta garrantzizkoa da esparru horietako lorpenei eustea etorkizunean ere. Segurutzat jotzen genituen lorpen sozial batzuk kolokan gelditu dira azkenaldiko garai nahasi hauetan.

Planteamendu feministek, ekologistek eta giza garapenekoek paradigma berrietarako alternatibak biltzen dituzte, guztiek ere, erdigunean kokaturik gizartearen ongizatea, emakumeen eta gizonen ongizatea, beren dibertsitateak eta naturarekiko loturetatik abiatuta. Proposamen feministek bizitzaren nagusitasunaren defentsa aldarrikatzen dute, dena kapital metaketaren mende jartzen duten erlazio merkantilei nagusitasuna eman ordez; ekologistek planetako bizitzaren iraunkortasunean jartzen dute arreta, etorkizunera begirako proposamen sozioekonomiko ororen baldintza gisa, eta giza garapen iraunkorraren ikuspegiak aurrekoekin partekatzen du emakumeen eta gizonen bizi-kalitatea ardatz hartzearen aldeko apustua, justizia sozialeko testuinguruan banakako nahiz taldeko askatasunen irizpideetan oinarriturik, justizia sozialeko esparru batean. Hortaz, ikuspegi guztiek eskaintzen dituzte gaur egungo eredia gainditzeko gizarte bakoitzeko errealitateei egokituriko estrategia alternatiboen eztabaidarako eta antolaketarako bizi elementuak, hiru ikuspegientzat funtsezko elementua baita emakumeek eta gizonek parte hartzea estrategia horien diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan.

Hiru ikuspegiak jabetzen dira, ongi jabetu ere, gizarte berdintasunik ezak direla eragozpen nagusietakoak pertsonen eta herriek beren bizi-proiektuak diseinatzeko potentzialtasunak garatzeko eta bizitza gogobetegarria, giza kalitatezko bizitza lortzeko. Alde horretatik, lan ildo bereziki interesgarria iruditzen zaigu honako hauetan sakontzea:

- “Bizitzaren iraunkortasuna” kontzeptuaren edukiak eta horiek praktikan inplementatzeko aurrerapausoak egiteko estrategiak, banakako nahiz taldeko gaitasunen ikuspegitik abiatuta.
- Zaintza jasotzeko gaitasunaren eta gainerako gaitasunen arteko loturak. Horretarako, beharrezkoa da “zaintza” kontzeptuaren definizioan sakontzea, bizitzaren erreproduzio hedaturako funtsezko zaintzak ardatz harturik eta gainerako gaitasun nagusiekin dituzten loturak aztertzeko. Hori guztia, ez maila teorikoan soilik, baita maila praktikoan ere.

- Ekonomia sozial eta solidarioak gaitasunen implementazioan duen egitekoa, bereziki zaintza ez-merkantilei nahiz merkantilei dagokienez, zaintza publikoak eta pribatuak barne.
- Bizi-kalitatearen funtsezko adierazleak bilatzea eta identifikatzea, aukera izan dezagun gaitasunak eta gizarte bakoitzean horiek nola gauzatzen diren aldi-aldi ebaluatzeko.

## 4. Bibliografía





- AWID (2004): “Interseccionalidad: Una herramienta para la justicia de género y la justicia económica”. *Derechos de las mujeres y cambio económico*. 9. zk. Género & derechos.
- CARRASCO, Cristina (1991): *El trabajo domestico. Un análisis económico*. Madrid: Ministerio de Trabajo y Seguridad Social.
- CARRASCO, Cristina (arg.) (1999): *Mujeres y economía. Nuevas perspectivas para viejos y nuevos problemas*. Icaria-Antrazyt 147.
- CARRASCO, Cristina (2009): “La economía del cuidado: planteamiento actual y desafíos pendientes”. *Revista de Economía Crítica*, 11. zk.
- CARRASCO, Cristina, BORDERÍAS, Cristina eta Teresa TORNOS (arg.) (2011): *El trabajo de cuidados. Historia, teoría y políticas*. Libros de la Catarata, Madril.
- CHAVEZ, Patricia, QUIROZ, Tania, MOKRANIS, Dunia eta María LUGONES (2011): *Despatriarcalizar para descolonizar la gestión pública*. Cuadernos para el debate y la descolonización. Vicepresidencia del Estado Plurinacional de Bolivia. Dirección de Participación Ciudadana.
- DALLA COSTA, Mariarosa (2009): “El arcano de la reproducción hoy”, in Dalla Costa, Mariarosa, *Dinero, perlas y flores en la reproducción feminista*. Madril: Akal.
- DUBOIS, Alfonso, GURIDI Luis, eta María LÓPEZ BELLOSO (2011): *Desarrollo Humano Local: de la teoría a la práctica*. Bilbo: Hegoa-EHU/UPV.
- DUBOIS, Alfonso (2014): “Marco teórico y metodológico del Desarrollo Humano Local”. Bilbo: Hegoa.
- DUGGER, William M. eta WALLER, William T. Jr. (arg.) (1992): *The Stratified State. Radical institutionalist theories of participation and duality*. M.E. Sharpe Armonk, New York, Londres, Inglaterra.
- ESCOBAR, Arturo (2007): *La invención del tercer mundo. Construcción y reconstrucción del desarrollo*. Fundación Editorial el perro y la rana. Caracas, Venezuela.
- FRASER, Nancy (1996): “Redistribución y reconocimiento: hacia una visión integrada de justicia de género”, RIFP/8.
- FOLBRE, Nancy (1995): “Holding Hands at Midnight: The Paradox of Caring Labor”. *Feminist Economics*, Vo. 1, Issue. 1
- GOETZ, Anne Marie (arg.) (1997): *Getting institutions right for women in development*. Londres: Zed Books.

- HARCOURT, Wendy (2011): *Desarrollo y políticas corporales. Debates críticos en género y desarrollo*. Bellaterra. SGU. Bartzelona.
- HARDING, Susan (1991): *Whose science? Whose knowledge? Thinking from women's lives*. Cornell University Press.
- HERNÁNDEZ, Rosalva, SUÁREZ Liliana (arg.) (2008): *Descolonizando el feminismo. Teorías y prácticas desde los márgenes*. Cátedra, Valentzia.
- HIMMELWEIT, Susan (1995): "The discovery of Unpaid Work". *Feminist Economics*, 1 (2).
- HODGSON, Geoff (1989): "Post-Keynesianism and Institutionalism: the missing link" in John Pheby (arg.) *New directions in Post-Keynesian economics*, Edward Elgar.
- HODGSON, Geoffrey M. (arg.) (2007): "Introduction" in *The evolution of economic institutions. A critical reader*. Edward Elgar.
- Hooks, bell, et al. (2004): *Otras inapropiables. Feminismos desde las fronteras*. Traficantes de sueños, Madril.
- JABARDO, Mercedes (arg.) (2012): *Feminismos negros. Una antología*. Traficantes de sueños, Madril.
- JENNINGS, Ann (1993): "Public or private? Institutional Economics and Feminism" in Marianne A. Ferber and Julie Nelson (arg.) *Beyond economic man: Feminist Theory and Economics*, 111.-30. or., Chicago: University of Chicago Press.
- JUBETO, Yolanda (2011): "Debates sobre desarrollo y bienestar desde la economía feminista" in *Desarrollo, Cooperación y empresas transnacionales*. Pueblos aldizkari berezia.
- KABEER, Naila (1998): *Realidades trastocadas: las jerarquías de género en el pensamiento del desarrollo*. Paidós arg.
- LAGARDE, Marcela (2008): "Intercambio y desarrollo humano en América Latina. A.C". (Cidhal, AC). Honako honetan eskuragarri: <<http://empoderarmujeres.blogspot.com.es/2008/12/empoderamiento-segn-marcela-lagarde.html>>.
- LAGARDE, Marcela (S.F): *Guía para el empoderamiento de las mujeres*. Agrupación para la igualdad en el metal. Equal proiektua. I.O Metal. Femeval.
- LARRAÑAGA, Mertxe eta Yolanda JUBETO (2011): "El Desarrollo Humano Local: Aportes desde la equidad de género". *Hegoa Lan Koadernoak*, 56.
- LARRAÑAGA, Mertxe eta Yolanda JUBETO (2012): "Reflexiones en torno a género y desarrollo". *Hegoa 30 buletina*.
- LARRAÑAGA, Mertxe, JUBETO, Yolanda eta M<sup>a</sup> Luz DE LA CAL (2012): "La diversidad de los modelos de participación laboral de las mujeres en la UE-27". *Lan Harremanak* 25.



- LEÓN, Magdalena (2009): “Algunos desafíos para la economía feminista en América Latina” in CEFEMINA (Koord.): *Nosotras hacemos la (otra) economía. Aportes a los debates feministas sobre la economía*. CEFEMINA.
- LORENTE, Maite (2005): *Diálogo entre culturas: una reflexión sobre feminismo, género, desarrollo y mujeres indígenas quechuas*. Honako honetan eskuragarri: <<http://eprints.ucm.es/11849/1/PP01-05.pdf>>.
- MAYHEW, Anne (1999): “Institutional economics” in Peterson, J. and Lewis, M. (arg.): *The Elgar Companion to Feminist Economics*. Cheltenham. Edward Elgar. 479.-485. or.
- MELLOR, Mary (1993): *Breaking the boundaries: towards a feminist green socialism*. Paperback. Londres, Virago.
- MELLOR, Mary (2000): *Feminismo y ecología*. Siglo XXI.
- MIES, Maria eta Vandana SHIVA (1993): *Ecofeminism*, Londres, Zed Press.
- NELSON, Julie A. (1996): *Feminism, objectivity & economics*. Routledge London and New York.
- NUSSBAUM, Martha C. (2002): *Las mujeres y el desarrollo humano. El enfoque de las capacidades*. Herder.
- NUSSBAUM, Martha C. (2012): *Crear capacidades. Propuesta para el desarrollo humano*, Paidós, Bartzelona.
- NBE Emakumeak (2012): *La Economía Feminista desde América Latina. Una hoja de ruta sobre los debates actuales en la región*. NBE Emakumeak, Dominikar Errepublikak.
- OROZCO, Amaia (2007): *Cadenas globales de cuidados*. Género, migración y desarrollo saila. 2. dokumentua. INSTRAW
- OROZCO, Amaia (2010): *Cadenas globales de cuidados. ¿Qué derechos para un régimen global de cuidados justos?* INSTRAW.
- PHEBY, John (arg.) (1989): *New directions in Post - Keynesian Economics*. Edward Elgar.
- PICCHIO, Antonella (2001): “Un enfoque macroeconómico “ampliado” de las condiciones de vida” in Carrasco, Cristina (arg.) *Tiempos, trabajos y género*. UB, Bartzelona.
- PNUD (2010): *Actuar sobre el futuro: romper la transmisión intergeneracional de la desigualdad*. Informe Regional sobre Desarrollo Humano para América Latina y el Caribe 2010.
- POWER, Marilyn (2004): “Social provisioning as a starting point for feminist economics”, *Feminist economics*, 10 (3).
- QUIJANO, Aníbal (1992): “Colonialidad y Modernidad/Racionalidad”, in H. Bonilla (Bild.) *Los Conquistados: 1492 y la población indígena de las Américas*. FLACSO/ Librí Mundi, Quito (437-449).

- QUIROZ, Tania (2011): “Descolonizando el sujeto mujer” en Chavez, Patricia, et. al (2011): *Despatriarcalizar para descolonizar la gestión pública*. Cuadernos para el debate y la descolonización. Vicepresidencia del Estado Plurinacional de Bolivia. Dirección de Participación Ciudadana.
- SEN, Amartya (1990): “Gender and cooperative conflict” in I. Tinker (arg.) *Persistent inequalities. Women and world development*. Oxford: Oxford University Press.
- SHIVA, Vandana ([1988] 1995): *Abrazar la vida. Mujer, ecología y desarrollo*. Cuadernos inacabados. Madril: Horas y HORAS.
- SHIVA, Vandana (2006): *Manifiesto para una democracia de la tierra: justicia, sostenibilidad y paz*. Paidós.
- STIGLITZ, Joseph, SEN, Amartya & Jean Paul FITOUSSI (2009): *Informe de la Comisión sobre la Medición del Desarrollo Económico y del Progreso Social*, [www.stiglitz-sen-fitoussi.fr](http://www.stiglitz-sen-fitoussi.fr).
- SUÁREZ NAVAZ, Liliana eta Aída HERNÁNDEZ CASTILLO (arg.) *Descolonizar el Feminismo: Teorías y Prácticas desde los Márgenes*. Cátedra. Honako honetan eskuragarri: <<http://webs.uvigo.es/pmayobre/textos/varios/descolonizando.pdf>>.
- VARGAS, Virginia (2012): “El concepto de género se ha banalizado”. Honako honetan eskuragarri: <<http://www.pagina12.com.ar/diario/sociedad/3-198276-2012-07-10.html>>.
- VEBLEN, Thorstein (1967): *Absentee Ownership*. Boston: Beacon press.
- VEBLEN, Thorstein ([1899] 1947): “Pecuniary Emulation” The Theory of the Leisure Class, Mitchell, Wesley C. (arg.) *What Veblen taught*. New York. The Viking Press, 3. arg.